



Demokrazia, legeak eta erabakitzeko eskubidea gogoan hartu ditu, sakon, Iñaki Frierak. ▶22-23



Uribekostarren udako argazkien artetik zeintzuk dituzu gogokoen? Eman botoa... ▶16-17

hiruka

Uribe Kostako astekaria



103. zenbakia

2017ko
irailaren 21etik
irailaren 27ra arte

Musika, mugak gaindituz

Getxoko Folk Jaialdiak 10 ikuskizun eskainiko ditu Areetako Xake plazan. Musika-eskolan, ostera, umeentzako saio bat egongo da. ▶11



© MARA

HERRIZ HERRI SOPELA

Olatuetatik harago

Sopela Kosta Fest jaialdian doako jarduera ugari egongo dira, eguenetik zapatura bitartean; udaletxeko plazan, gehienak. ▶8



KULTURA URIBE KOSTA

Eta irabazleak dira...

ArgiHizkiak lehiaketaren sariak banatuko dituzte irailaren 28an, 19:30ean, Algortako Azebarri kultur elkartearen; bertan kusi ahal izango da erakusketa ere, urriaren 1era arte. ▶11

argi
hizki
ak 2017

Merkatu Zaharrari atarramentu ona ateratzeko prozesu parte-hartzailea abiarazi du Erandioko Udalak. ▶6

Lamiakoko ibarrean zeuden hondakinak kendu egin ditu Leioako Udalak; Eguzkik eman zuen egoeraren berri. ▶7

Gerra Zibilak Berangon eragindako hainbat kontuz berba egingo dute eguenean, hilaren 21ean, Berangoetan. ▶10

Gorlizko Mendibike Martxaren 26. ekitaldia antolatuko du Mendibike txirrindulari-elkarteak, domekan. ▶18

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua martxan ipini dute

Auzokideek euren proposamenak eman ahal izango dituzte egunotan; horretarako, Udalak hiru postontzi ipini ditu Algortako, Areetako eta Bidezabaleko metro-geltokien ondoan. Modu berean, zenbait aurkezpen egingo dituzte.

Datorren urteko udal aurrekontuak osatzeko kontsulta-prozesua hasi du Getxoko Udalak. Hala, urriaren 1era bitartean, auzokideek udal-eskumeneoak diren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, betiere ondoko arlo hauei lotutakoak: Kultura, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Ingurumena, Babes Zibila, Segurtasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak. Horretara, Udalak milioi bat euroko diru-saila bideratu du.

Proposamenek teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan beharko dute, bertako herritar guztien interesa eta onura lehenetsi beharko dute, eta ez dute legez kontrako, difamaziozko zein diskriminazioko edukirik izan beharko. Amaia Agirre Herritarren Partaidetza-

rako zinegotziak gogorarazi du proposamenak honako pertsona hauek egin ditzaketela: «Getxon errolatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein herritarrik; bertoko erakundearen erregistroan izena emanda duen edozein erakundek; helbide soziala edo establezimendu iraunkorra Getxon daukan edozein elkarterk, fundaziok, sindikatuk, enpresen elkarterk, profesionalen elkargok, zuzenbide publikoko korporaziok edo bestelako erakundek, baldin eta nortasun juridikoa esleitu bazaie, antolamendu juridikoarekin bat etorritz».

Ideiak aurkezteko azkenengo eguna urriaren 1a izango da, 15:00etan. Horretarako, Udalak hainbat bide eskainiko ditu, aurrez aurre zein online bidez. Ostean, udal-teknikariak aztertuko dute herritarren proposamenen



Hainbat modutan helarazi ahal izango dira iritziak, berbarako postontzien bidez.

bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Behin prozesua amaituta, herritarrentzako itzulketa-txostena egingo da; bertan, hartutako proposamen eta erabakien arrazoiak azalduko dituzte. Partaidetza bidezko udal-aurrekontuak sakonago ezagu-

tzeko, hainbat aurkezpen egiten dabil Udalak; azkenengoa, hilaren 21ean izango da, eguenean, Gobela ikastolan, 19:00etan. Gainera, udalerriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ere saio informatiboak egitea aurreikusi dute udal-arduradunek. ◀

Seme-alabekin hasi nintzen lau hitz esaten... orain gero eta gehiago egiten dut

Arantza, arria, 2. maila

Anímate y apúntate al Euskaltegi

Informazioa: www.getxo.eus/euskara

Getxo Bizkaia

Fadura kirol-parkearen prozesua, zalantzan

EH Bilduk esleipenaren bigarren faseko plegua kritikatu eta bertan behera uztea eskatu du.

Fadura kirol-parkea diseinatze-ko esleipenaren bigarren faseko plegua kaleratu du Getxo Kirolakek; berori salatu du EH Bilduk, «aldez aurretik aukeratutako» enpresa bat kontratatzea bideratuta dagoela iritzita. Hori dela eta, bigarren fasearen esleipena bertan behera uztea eskatu dute. Koalizio abertzaleak deitoratu du esleipena lortzeko enpresek «beharrezkoak ez diren» hainbat eskaera bete behar dituztela, berbarako hiri eta arkitektura-diseinuari lotutako partaidetza-prozesuetan nazioko eta nazioarteko esperientzia izatea eta parte-hartzea ahalbidetuko duen software propioa garatu izana. Horren harira, uste dute baldintzok «beharrez-

koak ez diren zailtasunak» jartzen dituela, Getxoko enpresen «kalterako». Ostera, Getxo Kirolakek aintzakitza hartu du prozedura ireki bat lizitatzea, teknikariak proposatzen dituzten behar guztiakaz. «Herriarentzat proiektu estrategikoa denez, erakundearen helburua da proiektuaren garapen ona bermatzea», azaldu du. Horrez gainera, arduradunek uste dute oso garrantzitsua dela enpresa lizitatuak «goi-mailakoak» izan daitezela ziurtatzea. Bestalde, euskararen erabilerari dagokionez, EH Bilduk deitoratu du pleguetan ez dela euskara kontuan hartzen: «bitxia da oso herritarrekin harremanetan ibili behar den enpresari euskararen inolako eskakizunik ez egitea». Horri erantzunez, Getxo Kirolakek iragarri du las-ter hasiko den parte-hartze prozesuan euskara erabiltzeko eskubidea bermatuko dela, «Fadurako garagardotegi zaharreko eraikina berritzeko izandako prozesuan egiten den bezala». ◀



Maratila

ITZIAR
LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

Gure autogobernua saltzen ari dira

Gaurko egunkarietan berri ere irakur dezakegu aurten EAEko ogasunak uste baino diru gehiago ari direla biltzen (datu hau urte amaieran konfirmatu beharrekoa da). Jarraian nire buruari galdetu diot diru hori zertan gastatu ahal dugun eta ditugun beharren zerrenda luze bat etorri zait burura. Baina jarraian ere gogoratu dut Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek hitz eman dutela uztailearen 11n Rajoyren gobernuak, EAJren botoari esker, ezarritako «gastu-araua» izeneko beteko dutela.

Akordioan zera adostu zuten, administrazio guztien (eta beraz, baita Hego Euskal Herrikoen) aurrekontua gehienez %2,4 nominala haziko dela 2018an. Alabaina, gastu-arauak esan nahi du euskal erakundeek ezin izango dutela gastua gehitu, ez eta diru-sarrera nahikoak badituzte ere. Gauza bera gertatuko litzaiteke ondorengo urteetan. Espero baino sarrera handiagoak izanez gero, zor publikoaren ordain aurreratura bideratu beharko lirake; honek inbertsio soziala haztea galaraziko luke.

Betidanik esan izan digute Ekonomi-Itunak euskal erakundeek diru-sarrerak beren esku izateko aukera ematen diela, zertan gastatu erabakitzeko. Haatik, gastu-araua horren aurkakoa da.

Agerian geratzen da ere Eusko Jaurlaritzak jarraitu egingo duela politika neoliberalak, doikuntzak eta murrizketak aplikatzen. PPK estatu mailan ezartzen duen eredu antisozial bera.

Eta gainera gizarteari saldu nahi izatea «akordio» hori alde-bikotasunaren fruitu dela adar jotze hutsa da. Nolanahi ere agerian uzten du ustezko alde-bikotasunaren mamia: Madrilek inposatzen duena onartzea.

ELAk indar politiko progresistek eskatzen die akordio hau arbuia dezatela. ◀

Getxo

Galeako gotorlekua zaharberritzeko laguntza galdu dela salatu dute

Getxoko Gobernu-taldeak azaldu du deialdiak iraun zuen denbora-tartean «zailtasunak» zeudela beharrezkoak ziren hitzarmen-politikoak lortzeko.



Galeako gotorlekua berreskuratzeko eta balioesteko proiektua onartu zuen Udalak urtarrilean.

Galeako gotorlekua berreskuratzeko Getxoko Udalak erabil zezakeen 1 milioi euroko diru-laguntza jasotzeko aukera galdu dela salatu du PPK, «Gobernu-taldearen utzikeriagatik». Azaldu dutenez, joan den uztailearen 19an Espainiako Ondare Historikoa Babesteko diru-laguntzak jasotzeko epea zabaldu zuen Espainiako Gobernuak, eta abuztuaren 17ra arte egin zitezkeen eskaera. Ostera, Getxoko Udalak ez du inolako eskaerarik egin. «Gotorlekua Ondare Historiko gisa dago katalogatuta eta Ondarearen zerrenda gorrian sartu du Hispania Nostra Elkarteak, eraikina kontserbatze egoera tamalgarrin dagoelako», azaldu du Eduardo Andrade bozeramaile popularrak. Horri erantzunez, Gobernu-taldeak azaldu du ez zuela laguntza hori eskatu denbora tarte horretan «zaila» zelako beharrezkoak ziren hitzarmen-politikoak adostea; dena dela, hurrengo deialdiak kontuan hartuko dituztela iragarri dute agintariek. Modu beran, gogoratu dute proiektua EHUGaz elkarlanean hasitako egitasmoa dela, Begoñako galerietan egin duten legez. ◀

Hezkuntza-gastuetan laguntzeko 150.000 euro emango dituzte

Getxoko Udalak udalerriko familiei eskaintzen dizkien diru-laguntzen eskaerak aurkez daitezke daborduko, urriaren 17ra arte. Laguntza horiek hasi berri den ikasturtean seme-alaben eskolatzeko gastuak ordaintzeko dira; horretara, 150.000 euro bideratuko ditu Udalak, denera.

Diru-laguntzok gutxienez 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera erroldatuta dauden herritarrek eskuratu ahal izango dituzte. Era berean, antzinatasun berean eskolatutako eta erroldatutako adingabeko seme-alabak izan behar dituzte, haur-hezkuntzako bigarren ziklotik (hiru urte) DBH mailara artean (hori barne) ikasten daudenak.

Eskaera bakarra izapidetu ahal izango da seme edo alaba bakoitzeko. Eskaerak osorik beteta aurkeztu beharko dituzte, Herritarren Arretarako Bulegoetako batean edo Getxoko Udalaren erregistro telematikoan. Inprimakia eskuragarri dago Herritarren Arretarako bulegoetan eta Getxoko Udalaren webgunean. ◀

info+: www.getxo.eus

Etorkizuna euskaraz dator. Nire etorkizunerako inbertsioa da

Kerman, 18 urteko gaztea

Anímate y apúntate al Euskaltegi

Informazioa: www.getxo.eus/euskara

Getxo Bizkaia Euzko Legebiltzaria Euzko Foru Batzordea Euzko Legebiltzaria Euzko Foru Batzordea

Getxo

Areetakoak ere, jaien lekuko izateko prest

Mesedeetako Andra Mariaren jaiak ospatuko dituzte barikutik domekara bitartean, Areetan. Ohi den legez, askotariko jarduerak egongo dira denen gozatzeko.



Barraskiloen lehiaketa gastronomikoa egingo dute domekan.

Mesedeetako Andra Mariaren jaiak hankaz gora ipiniko dute Areetan aste-akabuan. Izan ere, hilaren 22tik 24ra bitartean, auzokide denek kaleak hartuko dituzte bertoko Jai Bartzordeak antolatutako askotariko jardueraz gozatzeko. Hala, hiru egunez, adin denentzako hamaika ekitaldi izango dira aukeran. Ohi legez, Eskoletako plaza eta Adiskidetasun kalea izango dira festetako gune nagusiak. Getxoko Udalak eraso sexisten kontrako kanpaina indartuko du jaiak iraungo duten bitartean; gainera, Udaltzaingoak ohiko operatiboa martxan ipiniko du, ahal den neurrian, istilurik jazo ez dadin eta adingabekoei alkohola ematea ekiditeko. Bestalde, Areetako tabernekin ordu eta erdi beranduago itxi ahal izango dute, bari-kuan eta zapatuan. ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 22, barikua

18:30 Txupina botatzea eta pregoia irakurtzea, Ondarreta Abesbatza. Eskoletako plazan. Ostean, abesbatzaren emanaldia.

21:00 Eley eta Guda Dantza taldeen kontzertuak, Eskoletako plazan.

21:30 Keep Calm taldearen kontzertua, Adiskidetasun kalean.

Irailak 23, zapatua

13:00 Herri-kirolen ikuskizuna, Inaxio Perurena egongo da. Ondoren, sardina-jana, Eskoletako plazan.

18:00 Berantzagi eta Sasieskola taldeen dantza-emanaldia, Adiskidetasun kalean.

22:30 Sound Gaua, Eskoletako plazan.

Irailak 24, domeka

10:00 Barraskiloen XXIII. Lehiaketa Gastronomikoa, Adiskidetasun kalean.

14:30 Herri-bazkaria, Eskoletako plazan.

17:00 I. Mus Txapelketa, Eskoletako plazan.

«Zazpi Euskal Herriak bat egiteko» festa egingo dute zapatuan

Zapatuan egingo dute Algortan Euskal Herria Eguna. Hilaren 23an, goizeko 11:00etan ipini dute lehenengo hitzordua, Algortako Portu Zaharrean. Aurrerantzean, jolasak, ginkana, dantza kolektiboak, elektro-txaranga eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste. Azken horretarako txartela erostea beharrezkoa da, 12 euroan, Baster edo Hator tabernetan. Azaldu dutenez, JaKietan Baserritik filosofiagaz bat egingo du bazkariak. Gauean, berriz, DJ DGZ eta DJ Bull musikariek dantzarako dituzte Azebarri kultur elkartera bertaratu diren denak. ◀

Surflariei deialdia, galdeketaren aldeko mosaikoa osatzeko

Azaroaren 5ean eskualdeko hainbat herritan egingo den herri-galdeketa aldeko mosaikoa egingo du Uribe Kostako Itsasoruntz Ekimenak. Ekintza Algortako Portu Zaharrean izango da, irailaren 30ean. Horretarako, 300 surflari batu gura dituzte Gure Esku Dagoren ikurra irudikatzen dituzten 300 uretan. Ekitaldian parte hartu gura dutenek 11:00etan hurreratu beharko dute Portu Zaharrera; ekitaldia 12:00etan hasiko da. Getxoko Gure Eski Dago taldeak pozez hartu du herri-ekimen hori, eta berak ere horretan parte hartzea deitu du. ◀

Itzubaltzeta gaztetxea oroitzeko eguna, zapatuan

Sei hilabete igaro dira lehengo Itzubaltzeta gaztetxe sutea izan zenetik. Orduetik, gune autogestionatua zegoen orubea hutsik dago, ez dago pabiloien arrastorik. Hori dela eta, bere garaian auzoko gazte askoren topagunea izandako eraikina oroitzeko eguna egingo dute zapatuan, hilaren 23an, Itzubaltzeta/Romon.

Eguerdiko 13:30ean txupina botako dute gaur egun gaztetxea dagoen «Etxe merkea»-ren parean. Jarraian, Errekagane kalera hurbilduko dira, Itzubaltzeta gaztetxea zena gogoratzeko ekitaldia egiteko. Horren ostean, 15:00ak aldera, bazkaria egingo dute elizaren arkupetan; horretarako txartelak erosteko azkenengo eguna eguna izango da, Mona tabernan eta institutuan. Gosea ase ostean, bingo musikatuak alaituko du giroa. Ondoren, poteoa hasiko dute kalerik kale eta tabernaz taberna, 18:30etik aurrera. Tragoxkak edan bitartean, jolasak egingo dituzte; horrez gainera, udal-erriko musika-jartzaile gazteek mu-



sikas poztuko dute poteoa. Egunari amaiera emateko, «gazte ordua» egingo dute Andros eta Topa tabernetan, 01:00 eta 02:00 bitartean.

Itzubaltzeta gaztetxearen lana

Itzubaltzeta gaztetxearen kideek egin dako lana babestu dute Getxoko Udaltzatza osatzen duten ia alderdi politiko denek, PPK izan ezik. Joan den apirilaren 19an erre ziren gune autogestionatua zegoen pabiloia, eta udal-talde gehienek adierazi dute eraikin berri bat eraikitzea gogoko luketela, popularrek proposatutako ibai-parkearen aurretik. ◀

CURSO
2017
2018
IKASTURTEA

MATRIKULA
ZABALIK

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA



Bulego ordutegia:

Horario de oficina:
09:30 - 13:30
17:00 - 20:00

Algortako etorbidea, 104
48991 - Algorta (Getxo)

TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE
MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES LOS SÁBADOS
AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK LARUNBATETAN

944 606 671

www.jagirre.net
j.a.agirre@euskalnet.net



Heldu euskarari!

PARA ALUMNOS DE 6 A 16 AÑOS

6-16 URTEKO GAZTEENTZAT

3 HORAS SEMANALES • ASTEAN 3 ORDU
17:30-19:00

lunes y miércoles • martes y jueves
astelehen eta asteazken • astearte eta ostegun

Refuerzo de la asignatura,
aprendizaje lúdico,
tiempo para preparar exámenes
y hacer los deberes.

Ikasgaia sendotzeko,
ikasketa jostagarria,
etako lanak egiteko
eta azterketak prestatzeko.

28/29/30

IRAILA SEPTIEMBRE GETXO

IZAKINEN AMAIERAKO MERKATUA • MERCADO DE SALDOS

LOS COMERCIOS DE GETXO SACAN SUS PRODUCTOS A LA CALLE
GETXOKO DENDEK KALERA ATERAKO DITUZTE BERE PRODUKTUAK



EURIA EGINEZ GERO | EN CASO DE LLUVIA

Azoka urriaren **2ra eta 3ra** luzatuko litzateke
El mercado se prolongará los días **2 y 3** de octubre



**PARTE-HARTZAILEAK
PARTICIPANTES**

www.getxo.eus/getxolan



Getxo
bizi ezazu





LABetik atera berri

IRATXE
AZKUE REINALES
LABeko Eskumaldeako
idazkaria

Aldaketa sozialerako independentzia!

Euskal Herria eta Katalunia bi herri desberdin gara, errealitate desberdinak ditugu han eta hemen, baina bi herriok bizi dugu baldintza bera: erabat antidemokratikoa den estatu baten parte gara, erabakitze eskubidea ukatzen duen estatu baten parte. Eta Kataluniako herriak, Kataluniako herritarrek, beren etorkizunaz erabakitze aukera da urriaren 1ean egingo duten Independentziarako Erreferenduma. Demokrazia-ariketa gorena. Guk argi dugu galderari zer erantzungo geniokeen: baiezkoa, independentistak garrelako. Independentzia delako, pertsonen bizitza erdigunean jarriko duen eredu bateranzko bidean, aldaketa sozialerako tresna eta bide eraginkorra. Hala ere, galdetzea bera da garrantzitsuena. Etorkizunaz erabakitze eskubidea izatea, galdetuak izatea eta bozkatu ahal izatea. Onartezina da debekua, errepresioa eta bide judiziala izatea erabakitze eskubidea gauzatzeko ariketari ematen zaion erantzuna. Eta hori da Kataluniako kasuan gertatzen ari dena: mehatxua eta erasoa besterik ez dute jaso Espainiaren aldetik. Ez dute onartzen herri katalanaren demokrazia-ariketa. Erabakitzea debekatzen ari dira. Horregatik, erabakitze eskubidea defendatzen duen orok posizio garbia eduki behar du. Anbiguetaterako tarterik ez dago. Edo baiezkoa edo ezezko posizioa, ez dago besterik. Gu baiezkoaren aldekoak gara, baina, PNVk eta Eusko Jaurlaritzak nahiago dute, antza, anbigueta-tearen jokoa, eta horrek irakurketa bakarra dauka: «ez dute burujabetza prozesu bat nahi». LABen badakigu zein aldetan gauden, eta, horregatik, Euskal Herriko langileei dei egiten diegu erabakitze eskubidea eta urriaren 1eko Kataluniako erreferenduma babesteko. ◀

Erandio

Azoka, zaharberritze

Merkatu Zaharrari atarrementua ateratzeko prozesu parte-hartzailea abiarazi du Udalak.

Egunotan, auzokideek hiru bilera antolatu ditu Erandio-ko Udalak, Merkatu Zaharra Proiektua egitasmoaren barruan. Azokan bertan egindako batzar horien bidez, Udal Gobernuak ezagutu gura izan ditu erandioztarrek kultur ekipamendu horri eman gura dizkioten erabilerak eta diseinuak. Izan ere, urte hasieran agindu zuen Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziak eraikin hori zaharberrituko zutela, EH Bilduren galderei erantzunda. Azken hilabeteotan, jarduera bi egin ditu Udalak lokalean: Udal Artxiboko materiala hara mugitzea eta Antzerki Eguenak ekimena bertan antolatzea. Eraikinen zaharberrituz, Udalak auzokide denen beharrak ase gura ditu; baina, batez ere, gazteriarentzako gune eta jarduera gehiago lekutu nahi ditu bertako 900 bat metro koadroetan. Azokan zenbait lan aurreikusi du Udalak; iragarri dutenez, lau fasetan egingo dituzte eta hemendik urtebetera amai-



Altzagako kultur birika da Azoka Zaharra.

tuta leudeke. Horretara bideratutako aurrekontua 600.000 eurokoa da.

Bileren aurretik, Erandioko Udalak zenbait ekipamendu proposatu ditu, berbarako gazteleku bat, askotariko erabilerako eremu bat, antzezleku bat eta kontzertu-areto bat. Hala, horietako batzuk izandako batzarretan ere aipatu izan dituzte.

Horrez gainera, sarbideak ere zaharberrituko lituzkete; Santi Brouard

plazako ume-parketik sartu ahal izango da etorkizunean, prozesu parte-hartzailean kontraktorik erabaki ezean. Besteak beste, honako proposamen hauek jaso dituzte batzar irekietan: azokan kontzertuak, antzezlana eta nagusientzako dantzaldiak egitea; akustika eta kalefakzioa hobetzea; eta zinema, gazteleku, gazteentzako entsegu-lokala, umeen ludoteka eta taberna bana ipintzea. ◀

Berbotseko lagunen festa, ikasturtea hasteko erronka



Erronkari heltzeko eskatuko die Berbotsek herritarrei. © BERBOTS

Zapatuan hitzordu berezia izango dute erandioztarrek, irailaren 23an. Berbots euskaltzaleen topaguneak antolatuta, elkarteko lagunen jaialdia egingo dute. Ekimena goizeko 11:00etan hasiko da: berbaldia antolatu dute lehengo postetxean; Aguraingo eta Lasarte-Oriako euskalgintzako ordezkariak euren esperientziak azalduko dituzte, pare bat orduz. 14:30ean, herri-bazkaria izango da Irailaren 23a

plazan; aurretik izena ematea beharrezkoa da, Altzagako La Plaza tabernan edo Astrabuduko Akeitetxean. Bazkalostean, helduentzako jolasak eta Luhartzen erromeria egongo dira. Festa-proposamenaz gainera, erronka-gonbidapena ere bada Berbotsek egindakoa. Izan ere, apustu egin dute «Erandion baietz 11 egun euskaraz elkarregaz» egitearen alde; «ahobizien» eta «belarripresten» bila dabilta. ◀

Herri-kontsultaren itauna aurkeztuko dute zapatuan

Datorren azaroaren 5ean, herri-galdeketa egingo dute eskualdeko zenbait udalerritan, tartean Erandion. Bertako Gure Esku Dago taldeak zabaldu duenez, zapatuan jendaurrean aurkeztuko dute azaroan bozkatuko den galdera. Hala, irailaren 23an, hitzordua 13:00etan ipini dute, Altzagako metro-geltokiaren atzeko zabalgunean. Dozenaka herritar batu ziren joan den irailaren 9an, Astrabuduan, berba-kafe batean galdera erabakitze. Gogorazi dutenez, aurreko ekimena kurtsoa hasteko lehenengoa izan zen, «eta erabakitze eskubidearen inguruko gertaera ugari ditugu zain». Aurreko ikasturtea «behar genituen sinadura guztiak eta gehiago» batuta amaitu zuten. Pasa den ekainean, 50 bat pertsona prest agertu ziren egin beharreko zereginetan beharrean hasteko, herri-kontsulta antolatzeko. Hala, herri-galdeketa egitea erabaki zuten, «aho batez». Azaroaren 5ean ipini zuten data, «Getxo, Leioa eta Berangogaz batera». ◀

Leioa



Gobela erreken bazterretan pilatzen ziren hondakinak. © EGUZKI

Lamiakoko ibarrean zaborra kendu dute

Eguzkik ohartarazi zuenez, hondakin asko zeuden Gobelatik hurbil; Udalak kendu zituen.

Gobela erreken bazterretan legez kanpo botatako hondakinak zeudela publikoki salatu zuen Eguzki talde ekologistak, irailaren 12an. «Eurakaz berba egin ostean», sastarrak «hurrengo egunean bertan» kendu zituztela baieztatu du Iban Rodriguez Etxebarria alkateordeak. Hala ere, udal-agintariak argi utzi gura izan du «horiek garbitzea ez dela Leioako Udalaren ardura».

Bestalde, Rodriguezek azaldu duenez, «legez kanpoko obrak egiten dituztenek bota ohi dituzte hondakinak inguru horretan». Hala, errieta egin die EAJkoak Eguzki talde ekologistako kideei, «gaia publiko egin aurretik, hobe delako aurretik udal-agintariak berba egitera joatea». Horrez gai-

nera, alkateordeak kritikatu du «hondakinak bota behar dituztenek orain badakite nora bota ditzaketen». Rodriguezek adierazi duenez, behin baino gehiagotan atxilotu dituzte Lamiakoko ibarrean sastarrak botatzen zebiltzan hainbat lagun.

Natur paisaia berezia

Lamiakoko metro-geltokitik Euskotren garraio-enpresaren kotxe-lekue taraino, futbol-zelai inguruko berdeguneetan topa zitezkeen hondakinak. Leioako Udalari, Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari eta URari horiek kentzeko eskatu zien Eguzkik. Talde ekologistak azaldu duenez, Lamiakoko ibarreko hezegunea Bizkaiko Agenda 21 ekimenean jasota dago, «paisaia natural berezia» delako. Europatik Afrikara doazen hegazti migratzaile ugari atsedean hartzeko gunea da; horien artean, arriskuan dauden 40 txori-motak baino gehiagok egiten dute geldialdia, bertan. ◀

Crassh-egaz ospatuko dute Kultur Leioaren urteurrena

Daborduko dozena bat urte igaro dira Kultur Leioa inauguratu zutenetik. Urteurrena ospatzeko asmoz, umeentzako ikuskizuna emango du Crassh talde portugaldarrak, zapatu honetan, irailaren 23an. Kultur Leioako kafetegian, saio bi egongo dira, bata, 17:00etan; eta bestea, 18:30ean; sarrerak (3,75-5 euro) leihatilan eros daitezke. PVCzko tutuek zein eguneroko objektuek... denak balio du txikienen zentzumenak suspertzeko, Crassh taldeko kideen ustez. Hainbat soinuren bitartez, une apartak bizi araziko dizkiete gurasoei eta seme-alabei. Izaera sendoa duten pertsonaia bik ikusleak harrutuko dituzte, berezko duten muturreko musikaltasunaz, eta interakzio etengabeari esker; ondo pasatzeko modukoa izango da. *Crassh babies* ikuskizuna 5 urtera arteko umeentzat da. Bestalde, *Crassh StreetNonStop* erritmoz beteri-



Talde portugaldarreko kideak. © CRASSH

ko desfile girotzailea eskainiko du talde berak, zapatuan bertan, 20:00etatik aurrera, Errekalde plazan. Energia eta ikusleak hartu-eman dira saioaren oinarriak. Txikienezko zein helduentzako ikuskizun bitxi eta original horretan, soinuk probatu eta sentituko dituzte ikus-entzuleek, hainbat baliabideren bidez: tutuak, kaskoak, zerrak... Sorpresaz betetako ekitaldi dibertigarria da, Crasshena. ◀

Euskara ikasteko diru-laguntzen berri eman du Udalak

Daborduko zabalik dauka 2017-2018 ikasturteko ikastaroetan izena emateko epea Mastitxu udal euskaltegiak; irailaren 22ra arte egongo da aurrematrikula egiteko aukera, bari-kura arte. Lamiakoko AEK euskaltegian ere izena eman daiteke daborduko. Horiei lotuta, euskara ikasteko diru-laguntzen berri eman du Leioako Udalak; izan ere, eskaera ikastaroak amaitu ostean egin beharrekoa bada ere, subentzioak emateko eskoletara joatea kontuan hartzen dute: gutxienezko asistentziak %85ekoa izan beharko du. Laguntzen gaineko informazioa 946 072 576 telefono zenbakira deituz eska dezakete interesa dutenek. ◀

Azaroaren 5eko itauna aurkeztuko du Gure Esku Dagok

Leioako Gure Esku Dagok zapaluan jakinaraziko du datorren azaroaren 5eko herri-galdeketa egingo duen itauna. Irailaren 23an, ekitaldia 21:00etan egingo dute, Udondon; bideo-proiektzioa ere egongo da. Galdera aurkezteaz gainera, beste hainbat osagai izango ditu egunak. Besteak beste, 18:00etatik 20:00etara arte, dantza plaza ibiltaria egingo dute Lamiakoko metro-geltokiaren aurrean, Txoperan, Txopera Barrin eta Udondon; ordu erdiz egingo dute dantza leku baikoitzean. Ostean, talo-jana (20:00), ekitaldia (21:00) eta Bidean taldearen dantzaldia (21:30) egongo dira. ◀

info+: leioa@gureskudago.eus

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN MASTITXU EUSKALTEGIA

PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN MASTITXU EUSKALTEGIA

Aurrematrikula/Prematricula
Irailaren 1etik 22ra del 1 al 22 de setiembre

HABE TITULU OFIZIALAK EUSKALTEGIAN BERTAN LORTZEKO AUKERA
Euskara ikasteko diru-laguntzak

HABE POSIBILIDAD DE OBTENER LOS TITULOS EN EL EUSKALTEGI
Subvenciones para el aprendizaje de euskera

MASTITXU EUSKALTEGIA
Iparagileto etorbidea, 78
48940 - LEIOA
euskaltegi@leioa.net
www.euskaltegi.net
T 94 464 00 02
Fax 94 460 20 00

facebook.com/leioa

Sopela

Batera surfa, kultura eta natura

Sopela Kosta Fest

jaialdian doako hainbat jarduera egongo dira, eguenean hasi eta domekara bitartean.

Laugarrenez antolatu du Sopelako Udalak natura, surfa eta kultura ardatz dauzkan Sopela Kosta Fest jaialdia. Aurten, irailaren 21etik 24ra arte, doako dozenaka jarduera eta ikuskizun egongo dira, baita Euskal Herriko surf-zirkuituan ospe handia duten txapelketak ere; musikak ere leku garrantzitsua izango du. Berrikuntzaren bat aipatzearen, kayak-surfa eskainiko dute doako ikastaroen artean; hala ere, hainbat jardueratan parte hartzeko, aurretik izena ematea beharrezkoa izan da. Aurreko urteetan legez, kon-



Surfaren industria aztertuko dute Surf Business Meeting topaketan. © SOPELA KOSTA FEST

tzertuak ere doakoak izango dira; betiko legez, Udaletxeko plazan ipini dute agerleku nagusia. Guztira, beratzi taldek eta disc-jokeyk joko dute: Rubia, Señores, LOs Tiki Phantoms, Willis Drummond, Koban, Kokein, Tomasi-

to, Delorean eta Optigan DJa, hurrenez hurren. Film laburren txapelketaren sari-banaketari dagokionez, gaur, eguenagaz egingo dute, irailaren 21ean, 20:30ean, Udaletxeko plazan; mila euro banatuko dituzte, aurten. ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 21, eguena

19:30 Film laburren sariketa irabazi duten lanak, Udaletxeko plazan. Sarrera, doan.

Irailak 22, barikua

19:30 Kantu-jira, Sopela Kantarigaz, Erroia tabernan hasita. Parte hartzea, libre.

20:00 Kontzertuak: Rubia, Señores, Los Tiki Phantoms eta Willis Drummond. Udaletxeko plazan.

Irailak 23, zapatua

12:00 Kometa-tailerra, Arriateran. Doan.

20:00 Kontzertuak: Koban, Kokein, Tomasito, Delorean eta Optigan1 DJa. Udaletxeko plazan. Sarrera, doan.

Irailak 24, domeka

10:00 Tai ji, Arriateran. Doan.

11:00 Sopela Beer Fest, Udaletxeko plazan.

19:00 *Crusoe* ikuskizuna, Markeliñegaz, Udaletxeko plazan. Doan.

info+: sopelakostafest.com

Zipiriñe ikastetxearen eta Iberre institutuaren gabeziak agerian, ikasturtearen hasieran

Udalerriko ikastetxe publikoek dauzkaten gabeziak agerian lotu dira ikasturtearen hasieran, berriro ere. 2009an handitze-lanak egin zituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako Zipiriñe ikastetxean; hala ere, oso urte gutxi pasa ostean, lan horiek guztiak ez dira nahikoak izan. 2017-2018ko ikasturtea hasteko, modulu aurrefabrikatu batzuk ipintzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Sopelako Udalak 8.675,55 euro esleitu ditu modulu horiek kokatuko diren hormigoizko oinarria egiteko, EH Bilduk jakinarazi duenez. Ezkerreko koalizioaren ustez, «aurrefabrikatuak, epe laburrean, adabakiak baino ez dira». Euren ustez, «Sopelak Haur eta Lehen Hez-

kuntzako bigarren ikastetxe berri bat behar du». EH Bildukoek aitortu dutenez, «ez da erraza: Sopelak gaur egun ez du lur-esparru egokirik». Hala ere, arazoari «lehentasuna» eman eta, «lurren birkalifikazioa eginez», orubeak bereganatzeko eskatu diote Udalari.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Iberre institutuan ere aspaldian geratu ziren leku barik, hezkuntza publikoa aukeratzen duten Sopelako ikasle guztiak hartu ezinda. EH Bildu agintean zela, lurak Udalaren esku uztea adostu zuten Udalak berak, Eusko Jaurlaritzak eta orubeen jabeek; «gaur egun, konponbidea oztopatzen ari dira lur-jabeen eta udal-agintarien jarrerak», ezkertiarrek salatu dutenez.



Eraikin aurrefabrikatuak ipiniko dituzte.

Euskal Herriko Lurzoruaren eta Hiri-gintzaren Legeari jarraituz, «zuzkidura publikoetarako lursailak zuzenean okupatzea» aurreikusten du EH Bilduk. Bitartean, Sopelako Gobernu-taldeak ez du ezer adierazi ikastetxe publikoaren arazoaren inguruan. ◀

Itzartu emakumeen elkarteak aurtengo jarduerak prest dauzka

Itzartu emakumeen elkarteak ikasturteak, berbaldiak, txangoak eta beste zenbait kultur jarduera antolatuko ditu 2017-2018 ikasturtean. Berbarako, hainbat kirol-jarduera (aerobica, yoga, pilatesa, gimnasia eta aqua fitness), eskulanak, pintura, antzerkia, jostintza eta patchworka egitea aukeratu egongo da. Izena eman gura dutenek gaurtik bertatik egin dezakete: irailaren 21ean zabaldu baitute ikasturtearen izena emateko epea. Gainera, genero-berdintasunaren gaineko egitasmoagaz lotuta, beste zenbait ekintza antolatuko ditu Itzartuk; esaterako emakumezkoentzako autodefentsa-ikastaroa, berbaldiak eta abarrak. ◀

info+: itzartu@gmail.com

ander deuna *haur hezkuntzatik batxilergora*

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

Oinutsik
Kontsulta podologikoa
Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)

Zubigane 4, SOPELA · 94 404 74 20
podologiaoinutsik@gmail.com

TAQU
TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13
ERROMO

Plentzia

Plentziako Esaera Zaharren lehiaketarako, dena prest!

Txapelketan parte hartu

gura dutenek hilaren 25a baino lehen izena eman behar dute.

Plentziako atsotitzen jaialdian parte hartzen duten taldeek 60 esaera zahar ezagutu eta buruz ikasi behar izango dituzte. «Zorteak jantzi, zorteak erantzi» goiburuagaz, hilaren 30ean izango da sariketa, zapatuan. Bertan parte hartu gura duten taldeek hilaren 25a baino lehen izena eman beharko dute, facebook edo email bidez. Parte-hartzaileak Eleiz plazan batuko dira, goizeko 11:00etan. Ostean, poteoa hasiko dute kalez kale, hainbat ibilbidetan banatuta. Talde bakoitzak bertsoan kontaktzen den egoezagaz lotutako esaera zaharra zein den



izena emateko: esaerazaharrakplentzian@gmail.com.


igarri beharko du; puntu gehien batzen dituztenek finalurrekoa jokatuko dute bazkalostean. Bazkaria Danontzat gatzetxean izatea aurreikusita dago, baina «arazo batzuk daudenez», antolatzaileek ezin izan dute konfirmatu bertan izango denik; eguna heldu baino lehen

jakinaraziko dute non egingo duten. Han, Xabi Paia eta Jone Uria bertsolarietako bertsoak kantatuko dituzte, eta esaera zaharra asmatu beharko dute taldeek, aurreko zatian legez. Finalean puntu gehien lortuko dituenak irabaziko du sariketa. ◀

Goñi Portal kultur etxean igogailua ipintzeko beharrak atzeratu dira

Goñi Portal kultur etxearen irisgarritasuna hobetu guran, igogailua instalatzen dabilta egunotan. Plentziako Udalak 50.000 euro bideratu ditu lan horietara. Hasiera batean udaren akabuan azpiegitura berria prest egongo zela aurreikusi bazuten ere, David Crestelo alkateak jakinarazi du lanak atzeratu egingo direla, «zuzenketa batzuk egon direlako». Goñi Portal 2001eko martxoan inauguratu zuten; Udalak 96.161 euro ordaindu zituen baserriaren truke eta 399.000 euro bideratu zituen hori zaharberitzera. Etxea 560 metro koadrokoa da, sotoa, solairu bi eta ganbara, askotariko jarduerak hartzeko diseinatu ziren. Hala ere, ez dago irisgarritasun egokirik horietara heltzeko. Hori dela eta, igogailua ipintzen dabilta, eraikinaren lau solairuak modu bertikalean lotzeko. ◀

æek % 100 AFEKTIBOA



EUSKARA IKASTAROAK

Zabalik dago 2017/2018 ikasturteko matrikulazio-epa Uribe Kostako AEK-ko euskaltegietan, eta hilaren 29ra arte izena eman ahal izango duzu.

Hala, urritik ekainera bitartean, AEK-k Uribe Kostan dituen 5 euskaltegietan eta gainontzeko geletan, euskara ikasteko eskaintza zabala duzu: eskolak euskaltegian, guraso-taldeak, azterketak prestatzeko modulu bereziak, on-line ikastaroak, autoikaskuntza, bernetegiak, mintzapraktika-taldeak eta jarduerak, normalizazio-planak, itzulpen-zuzenketa zerbitzua, AIZU! Aldizkaria... Ordutegiari dagokionez, asteko egun guztietan goizez zein arratsaldez klaseak jasotzeko aukera izango duzu.

Leioan, Algortan, Urdulizen, Plentzian eta Gorkizetan dauden euskaltegietan izena ematea aukeran izango duzu irail osoan, goizez zein arratsaldez. Hori dela eta, herritarrek animatu nahi ditugu 2017-2018 ikasturtean matrikula daitezen euskara-ikastaroetan.

Matrikula kanpainak iraungo duen bitartean, euskaltegietan egoteaz gain, eskualdeko kaleetan ere ikusiko dituzu AEK-ko lagunak. Irailaren azken asteburuan, esaterako, Getxo Folk Jaialdian egongo dira, Korrika kamiseten outletarekin; eta geratzen diren egunetan ez zaitez harritu beste herri batzuetan ere ikusiz gero.

Eman izena

www.aek.eus
http://www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.facebook.com/UribeKostako-AEK

æek
euskara praktikoa

Berango

Gerra Zibila, Berangon

Gatazkak udalerrian eragindako hainbat kontuz jarduteko berbaldia egingo dute hilaren 21ean, eguenean, Berangoetan.

Gerra Zibilak Berangon izan zuen eraginaren gainean berba egingo dute eguenean, hilaren 21ean, Berangoeta kultur etxean. Hitzordua 19:00etan ipini dute, eta Aitor Miñambres Berangoko Oroimenaren Museoko arduradunak emango du hitzaldia: «Gerra Zibila Berangon (1936-1937)». Berbaldia ordubetekoa izango da; bertan azalduko dituzte Berangon Gerra Zibilak izan zituen eraginak eta hainbat konturen gaineko zehaztasunak, esaterako Euzko Gudarostearen berangoztarrak, Burdin Hesiaren eraikitzea, herrian jazo ziren bonbardaketak, arma-fabrika, ge-



Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa 5 urte bete dituelako antolatu dute berbaldia.

rrako umeak eta tropa frankistek udalerria okupatu zuteneko... Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoren 5. urteurrena dela eta antolatu dute berbaldia. Burdin Hesia Bilbo eta bere inguruneak Francoren armada-rengandik babesteko eraikitako defen-

tza-lerroa izan zen. Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen 80 kilometro luzeko babes-hesia eraikitzea; gizon, emakume eta adingabe gudari askok jardun zuten eraikitzeke beharretan. Ferra itxurako defentsa-lerroa Bilbo eta inguruko herriak babesteko asmoz egin zuten. ◀

Decathlon kirol dendak irailaren 29an zabalduko ditu ateak

Hilaren 29an zabalduko ditu ateak Decathlon kirol-produktuen dendak, hurrengo barikuan, jarduera ekonomikoak garatzeko Landaidako gunean. Enpresa horrek langileak kontratatzeke prozesua martxan du oraindino, eta bere webgunean lanpostu bi betetzeko eskaintzak ditu: kirol-arlo baten arduraduna eta saltzailea.

Bestalde, Burger King hanburgesa-denda joan den uztailearen akabuan martxan ipini zen Berangon. Jatetxe horrek *auto-king* zerbitzua eskaintzen du, eskaria autotik jaitsi behar barik egin ahal izateko; eta iturriek jakinarazi dutenez, saltoki horrek 25 lanpostu sortu ditu.

Landaidako gune berria urbanizatuak 84.000 metro koadrokoa da; horien arteko 24.500 metro koadroan berdeguneak eta aparkalekuak egingo dituzte. Gainera, Mercadona eta Lidl supermerkatu kateak ere 2018an bertan ezartzea aurreikusita dago. ◀

Uribe Kosta

Urdulizko ospitalearen irisgarritasuna aztertuko du Arartekoak

EAEko ospitaleetan «ezgaituentzat irisgarritasuna hobetzeko» gomendioak eman dituzte, txosten batean.

EAeko ospitaleek «ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostiko-txostena» aurkeztu berri du Arartekoak. Aztertutako osasun-etxeen artean dago Urdulizko Alfredo Espinosa ospitalea. Adituek Arartekori helarazitako kexetan oinarrituta egin dute ikerketa, eta horren ondorioz, hainbat gomendio eman dituzte.

Hiri-inguruneari dagokionez, Goietakaleko zeharbidetako koska denak kendu beharrezkoak direla ondorioztatu dute, baita zeharbidetan oinez hautemateko baldosa aldatu eta behar den moduan ipini. Modu berean, hainbat ibilbideren eta sarreraren seinaleztapena hobetu beharra dagoela uste dute adituek. Gainera, ospitaletik hurbil autobus-geralekurik ez dagoela deitoratu dute; hori dela eta, garraio publikoa hurbildu beharra dagoela uste dute.

Aparkatzeko arazoaren harira, Goietakalean «ezinduei gordetako aparkalekuak» egitea gomendatu dute. Ospitaleko barrualdeari dagokionez, sarrera guztietan lanpas finkoak ipintzea beharrezkoa dela ohartarazi dute. Itxarongeletan, gainera, gurgil-aulkien erabiltzaileei gordetako lekuak eta mugikortasun murriztua dutenentzako jesarlekuak ipintzea eskatu dute. Txanda emateko makinaren irisgarritasuna eta ospitalearen barrualdeko seinaleztapena hobetu beharra dagoela ere nabarmendu dute. Kontsultaguneetan, altzari irisgarriak jartzeko gomendia eman du Arartekoak; era berean, garabi eta baskula nahikoak erosteko beharra dagoela ohartarazi du, gurgil-aulkien erabiltzaileek erabil ditzaten. Gainera, esku-ohetako finkoen orde, altuera alda dezaketenak jartzeko beharra azaldu du, eta kanpo-kontsulten unitateko ateak kontrastatzea gomendatu. Amaitzeko, komunetako irisgarritasuna berrikusi eta aldatu beharra dagoela ondorioztatu du, «hala behar duten komunetan». ◀

info+: www.ararteko.eus

Ekogune ikastaroetan izena eman daiteke daborduko

Hasi den ikasturteko Ekogune ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Jasangarritasun Sailak. Horretarako epemuga irailaren 30ean ipini dute, eta onartuen zerrenda urriaren 6an argitaratuko dute. Ikastaroak doakoak dira, 18 urtetik gora-

koentzat, eta parte hartu ahal izateko Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko 7 udaletako batean erroldatuta egotea beharrezkoa da. Maila aurreratuako ikastaroren batean izena emateko, beharrezkoa da aurretik oinarrituko maila egina izatea. ◀

info+: www.uribekosta.eu

Urduliz

Kiroldegia eta eskola handitzeko lanak martxan dira

Kiroldegia handitzeko lanak amaitzear daude. Futbol-zelaiko harmailen ondoan dauden padel-pistetako estalkia eginda dago daborduko, eta harmailen beheko aldean egongo diren askotariko erabilerako aretoak eta gimnasioa eraikitzeke lanak epe laburrean amaituko dituzte. Modu berean, kirol-jarduerak egiteko erabiliko den gunea egokitzeko lanak egiten dabilta, etorkizunean kiroldegia handitzeko erabili ahal izango dena. Bestalde, Elortza eskola handitzeko lanak ere martxan dira; aurrekusi dutenez, instalazioak amaituta eta erabilgarri egongo dira 2018-2019 ikasturterako. ◀

Barrika

Hondartza garbi mantentzeko kanpaina egin dute

Barrikako hondartza garbi mantendu ahal izateko kartela ipini du Txusbedar talde ekologistak. Horren helburua da hareatzaren erabiltzaileak kontzientziatzea, itsasoak haitzetan eta harean uzten dituen hondakinak jasotzea, hondartzatik alde egin baino lehen. Txusbedar taldeko erabiltzaile batzuek hori egiten dute hondartzara joaten diren bakoitzean, eta bestelako erabiltzaileak berbera egitera animatzeko helburua izan du jarritako kartelak. Joan den abuztuaren hasieran ipini zuten kartela, baina, azaldu dutenez, «ez dira adituak», eta denboraleek kartela kaltetu dute. ◀



José Mercé flamenko-kantariak abestuko du Getxoko Folk Jaialdian, besteak beste. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Saio nagusiak

Irailak 28, eguena

18:30 Trivium Klezmer (Aragoi). Doan.

21:00 Niamh Ní Charra (Irlanda), Ibon Koteron eta Xabi Aburruzagaz. Sarrera: 8 euro.

Irailak 29, barikua

18:30 Voces Navarras (Euskal Herria). Doan.

21:00 José Mercé (Espainia). Sarrera: 20 euro.

23:00 Los Texmaniacs (AEB). Sarrera: 5 euro.

Irailak 30, zapatua

18:30 Mara (Portugal). Doan.

21:00 Souad Massi (Aljeria). Sarrera: 10 euro.

23:00 Nakany Kanté (Ginea). Doan.

Urriak 1, domeka

11:00 / 12:30 *Musika ari du* umeentzako ikuskizuna, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Sarrera: 5 euro.

18:30 Bruna Sonora (Espainia). Doan.

21:00 Kukai Dantza konpainiaren (Euskal Herria) *Lotuneak* ikuskizuna. Sarrera: 12 euro.

info+: www.getxo.eus/eu/getxo-folk

Munduko folk doinuak

Getxoko Folk Jaialdiak hamar ikuskizun eskainiko ditu, Areetako Xake plazan. Gainera, umeentzako saioa egongo da, musika-eskolan; eta banden desfileak, kalean.

Irailaren 28tik urriaren 1era arte, 33. edizioa egingo du Folk Getxo BBK jaialdiak. Aurten, José Mercé flamenko-kantaria, Niamh Ní Charra artista irlandarra eta Souad Massi kantautore aljeriarra egongo dira agerlekuan. Horrez gainera, Kukai Dantza konpainiak egundoko amaiera eman dio jaialdiari, *Lotuneak* proiektu bereziaren bidez. Egitasmo integratzaile honek artista-sorta zabala batuko du,

dantzaren eta musikaren bitartez: Carlos Núñez gaita-jolea, María Berasarte abeslaria, Iñaki Salvador piano-jolea eta Xabier Zeberio biolin-jolea egongo dira, besteak beste.

Ohi den legez, saio nagusiak 21:00etan hasiko dira eta, horiez gainera, 18:30ean eta 23:00etan ere kontzertuak egongo dira. Arrastiko emeraldietan, Getxo Folkek proposamen heterogeneoa egingo du: Trivium

Klezmer-en erritmo sefardi eta Balkanetakoetatik, Bruna Sonoraren soinu iberiar, mediterraneo eta garaikideen nahasketaraino; Voces Navarras-en jotak eta Mara kantari portugaldarren fadoak ahaztu barik. Gainera, bari-kuko eta zapatuko kontzertu nagusiak amaitzen direnean, beste bi emanaldi antolatu dituzte. Lehenengoan, Getxo Folkek estreinako aldiz hartuko du Los Texmaniacs Texaseko taldea, tex mex soinuaren erreferentzia dena. Bigarrenean, Nakany Kanté abeslariak hots afrikarrak ekarriko dizkie ikus-entzuleei. Umeentzako saioari dagokionez, urriaren 1ean, domekan, Euskadiko

Orkestra Sinfonikoaren hari-laukotea eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo famatuak elkartuko ditu *Musika ari du* ikuskizunak, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Emanaldi bi eskainiko dituzte: bata, 11:00etan; bestea, 12:30ean.

Jaialdia 11 kontzertuz osatuko da, denera; eta kaleko banden kalejirez gozatzea ere aukeran egongo da. Modu berean, lankidetzeta eta kultur askotarikotasuna bultzatzen dituzten jarduerak ere egongo dira; berbarako Gune Solidarioa, Munduko Eskulenen Azoka eta hainbat herritako sukaldaritza eskaintzen duen Munduko Terraza. ◀

Biba Voi! antzezlanak, Euskararen Agendan

Plentziako eta Gorlizko Udalek prest daukate Euskara Agenda bateratuaren barruko ekitaldiak; irailean eta urrian egingo dituztenak, hain zuzen ere. Besteak beste, bariku honetan, irailaren 22an, *Biba Voi!* antzezlan eskainiko dute, Gorlizko udaletxeko bilkura-aretoan. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrera, doan. Bestalde, «urriko arrasti batean» berbaldia egingo dute, *Disfrutando de los idiomas: ¿Cómo ayudar a nuestros hijos/as con los idiomas y los estudios* goiburuzagaz. Irailaren 22ra arte izena eman ahal izango da. ◀

izen-ematea: euskeraz@uribekosta.org

Ekitaldiak

Irailak 22, barikua

19:00 *Biba Voi!* Dario Fo eta Franca Rame akorduan antzezlanak, Mikel Martínez eta Irati Agirreazkuenaga aktoreak, Gorlizko udaletxeko bilkura-aretoan. Sarrera, doan.

Irailak 30, zapatua

Plentziako Esaera Zaharren Txapelketa

11:00 Parte-hartzaileen bilkura, Eleiz plazan.

17:00 Finalurrekoa eta finala, Danontzat gaztetxean.

Urriak 7, zapatua

19:00 Anje Duhalde abeslariaren kontzertu akustikoa, Gorlizko udaletxeko bilkura-aretoan. Sarrera, doan.

Jone Uria algortarra izango da eskualdeko ordezkaria Bertsolaritza Txapelketa Nagusian

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia Baigorri hasiko da, zapatu honetan, irailaren 23an. Denera, hamalau saio jokatu dituzte; Barakaldoko BECen izango da finala, abenduaren 17an, domekan. Guztira, 43 bertsolarik parte hartuko dute; oraingo honetan, Jone Uria Albizuri algortarra izango da Uribe Kosta eskualdeko ordezkari bakarra; urriaren 7ko final laurdenean hasiko da lehian, Zallan. Eneko Abasolo *Abarkas*, Miren Amuriza, Odei Barroso, Oihane Perea eta Onintza Enbeita izango ditu lehian aldeak. ◀

info+: www.bertsozale.eus

ArgIHizkiak lehiaketaren sariak banatuko dituzte, irailaren 28an, Algortan; eta erakusketa abiarazi


ArgIHizkiak literatura-lehiaketaren sei garren edizioa 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 40 testu labur onenak osatutako erakusketa irailaren 28tik urriaren 1era arte bisitatu ahal izango da, Algortako Azebarri kultur elkartearen. Gainera, eguen horretan, 19:30ean, sari nagusiak banatuko dituzte: 16-18 urtera bitarteko mailan, Paula Gordaliza sopoloztarra eta Leyre Conde getxoztarra izan dira irabazleak; 18 urtetik gorako mailan, saria lortu dute Gortzone Butron gorliztarra eta Maitane Nerekan algortarrak. ◀

info+: www.arghizkiak.eus

hirukaganda

Uribe Kostako astekaria

2017ko irailaren 21etik irailaren 27ra arte



hiruka.eus

Gitarra eta akordeoia doinu-lagun dituztela abesten dute Ultramar taldeko kideek. © GETXOKO KULTUR ETXEA



GETXO

Kresalez zipriztindutako abestiak entzuteko aukera

Getxoko Habanera eta Itsas-abestien Jaialdiak 31 urte beteko ditu aurton; irailaren 22tik 24ra egingo dute, Areetako Xake plazan ipinitako karpapean. Bartzelonako Ultramar taldeak abestuko du lehenengo egunean, barrikuan; laukoteak 17 urte daroatza es-tilo horretako kantak abesten. Zapatuan, berriz, Gironako Les Anxovetes taldearen emanaldia izango da. Bost musikari gaztek osatzen dute banda

hori, eta errepertorio zabalak daukate: tradiziozko habanerek zein moldaketa berritzaileak abesten dituzte; horri esker, musikak doinu freskoa dauka. Hiru emakumezko abesten dute, gitarra-jolearen eta kontrabaxistaren doinuek lagunduta. Amaitzeko, doimekan, talde getxoar bik kantatuko dute: Zozoak eta Itxartu abesbatzek. Horrez gainera, Itsasoaren Azoka ikusteko aukera ere izango du bertaratuko denak, kantaldiak egingo diren

gunean bertan. Bisitariak itsasoagaz lotutako produktu gastronomikoak eta artikuluak erosi ahal izango dituzte azoka horretan: itsasontzien maketak, itsaskiak, bakailaoa eta itsas-kontsurbak egingo dira, besteak beste. Itsasoaren Azoka 19:00etatik 22:00etara zabalik egingo da.

Kontzertuei dagokienez, 19:30ean izango dira; gonbidapenak txarteldegian hartu behariko dituzte entzuleek, 18:00etatik 20:30era bitartean. ◀

ANTZERKIA

IRAILAK 22, BARIKUA

Biba Voi! antzezlan

19:00 | Udaletxea | Gortiz

Pientzia eta Gortizko Euskara Agenda. Mikel Martínez eta Irati Agirreazkuenaga aktoreakaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

IRAILAK 23, ZAPATUA

Oliver magoa

17:30 | Eskola plaza (Areetan) | Getxo

Mesedeetako Amaren jaiak. Gaztelaniaz. Doan.

BERBALDIK

IRAILAK 21, EGUENA

Aspectos de la Guerra Civil en Berango (1936-1937)

19:00 | Berangoeta kultur etxea | Berango

Berango Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoan arduraduna den Aitor Miñambresegaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

DANTZA

IRAILAK 23, ZAPATUA

Crazy Hospital Crew

20:00 | Eskola plaza (Areetan) | Getxo

Mesedeetako Amaren jaiak. Breakdance-erakustaldia. Doan.

EKITALDIK

IRAILAK 23, ZAPATUA

Gure Esku Dago Eguna

18:00 | Lamiakoko geltokiko plaza | Leioa

Leioako Gure Esku Dagok antolatuta. Dantza-plaza ibiltaria, talo-jana, ekitaldia, bideo-emanaldia eta Bidean taldearen dantzialdia egingo dira. Parte-hartzea, libre. Horrez gainera, azaroaren 5eko galdera aurkeztuko dute.

ERAKUSKETAK

IRAILAREN 24RA ARTE

Bizitza dantzan. Kukai 15 urte

Kultur Leioako erakustaretan | Leioa

Sarrera, doan.

IRAILAREN 29RA ARTE

Ines Artolazaga Gondraren olio-pinturak

Goñi Portal kultur etxea | Pientzia

Sarrera, doan.

Europeando. Europa

GASTRONOMIA

IRAILAK 24, DOMEKA

Barraskilo Lehiaketa

10:00 | Adiskidetasun kalea (Areetan) | Getxo
Mesedeetako Amaren jaiak. Sariak 19:00etan banatuko dituzte.

JAIALDIK

IRAILAREN 21ETIK 24RA

Sopela Kosta Fest

Udaletxeko plaza | Sopela

Sopelako Udalak antolatuta. Surfagaz, musikagaz eta naturagaz zerikusia daukaten hamaka ekitaldi egingo da. Informazio gehiago: sopelakostafest.com

IRAILAK 23, ZAPATUA

Berbots Lagunen Jaia

11:00 | Irailaren 23a plaza | Erandio

Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatuta. Mintegia, kale-animazioa, herri-bazkaria, ginkana eta Luhartz taldearen dantzialdia egingo dira. Parte-hartzea, libre.

Euskal Herria Eguna

12:00 | Azebarri kulturgunea | Getxo

Ondo-etorria, ginkana, dantza-plaza, bazkaria, argazkia, elektrotxaranga eta Djak egingo dira. Parte-hartzea, libre.

KIROLAK

IRAILAK 23, ZAPATUA

Herri-kirolak

13:00 | Eskolak plaza (Areetan) | Getxo

Mesedeetako Amaren jaiak. Inaxio Perurena herri-jasotzaileagaz. Doan.

KONTZERTUAK

IRAILAK 22, BARIKUA

Ondarreta abesbatza

19:00 | Eskola plaza (Areetan) | Getxo

Mesedeetako Amaren jaiak. Doan.

Guda Dantza

22:30 | Eskola plaza (Areetan) | Getxo

Mesedeetako Amaren jaiak. Doan.

IRAILAK 23, ZAPATUA

Crash babies ikuskizuna

17:00 eta 18:30 | Kultur Leioa | Leioa

Crash (Portugal) taldeagaz. 5 urte arteko umeeztatzat. Sarrera: 3,75-5 euro.

Crash StreetNonStop kalejira

20:00 | Errekalde plaza | Leioa

GETXO

Irakurzaleen batzarra, ikasturtea prestatzeko

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak ikasturtea antolatzeko herri-batzar egingo du gaur, eguena, irailaren 21a, Algortako Aldai patronatuan; hitzordua 19:30ean ipini dute. Egizu euskara-taldearen ekimena da UKITX. ◀

URIBE KOSTA

Euskaraz Olgetan egitasmoa bueltan da

Iraillean ere Euskaraz Olgetan egitasmoa egiten jarraituko dute, Lemoizen, Plentzian, Gorlizen, Urdulizen eta Sope-lan. Jolasen bidez, familiaratean euskara erabiltzea bultzatu gura dute. ◀

info+: www.uribekosta.eu

BERANGO

Milian izena emateko epea zabalik dago

Berangoko Nazioarteko Miliairen 30. edizioa irailaren 30ean jokatuko dute, zapatuan. Hala, bertoko atletismo-taldeak zabaldu du daborduko aldeaz aurretik izena emateko epea. ◀

info+: www.berangoatletismo.com

munduan. Getxo European

Algortako kultur etxea | Getxo

E-Civis elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

URRIAREN 1.ERA ARTE

Elkarrizketa berriak

Torrere Aretoa (Algorta) | Getxo

Getxophoto nazioarteko argazki-jaialdia. Talde-erakusketa. Sarrera, doan. Informazio gehiago: www.getxophoto.com

Pop. Herri-partaidetza. Etorkizuna hemen da

Torrere Aretoa (Algorta) | Getxo

Getxophoto nazioarteko argazki-jaialdia. Talde-erakusketa. Sarrera, doan. Informazio gehiago: www.getxophoto.com

IRAILAK 24, DOMEKA

Ana Bejerano abeslaria

20:00 | Adiskidetasuna kalea | Getxo
Meseetako Amaren Jaiak. Doan.


LEHIAKETAK

IRAILAREN 22.RA ARTE

Berangoko argazki-lehiaketan izena ematea

Liburutegia | Berango

Udan ere irakurtzen dut izango da gaia. Sari-banaketa irailaren 25ean egingo dute. Zalantzak argitzeko eta lanak bidaltzeko: liburutegia@berango.org



Musikaz eta irudimen apur batez, mundua dantzan ipintzeko gai da aitona Manolo. UZTARRIA.EUS

Haizearen herrira, Pupu eta Loregaz

Pupu (Iraitz Lizauraga), Lore (Elkain Iburguren) eta aitona Manolo (Inaxio Tolosa) dira protagonistak Imanol Urbietaren kantutegian oinarritutako saioan. Kantuen, dantzen eta jolas interaktiboen bidez, hiru lagunek parte hartzera gonbidatuko dituzte umeak eta helduak, ordubetez. ◀

Noiz: Irailak 24, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Areetako Andrés Isasi musika-eskola.
Sarrera: 5 euro.

GETXO

Jakinduriak mundua erreko dau, zientzia eta bertsolaritza uztertuz

Bizkaia Zientzia Plaza ekimenaren barruan, saio berritzailea eskainiko dute hiru zientzialarik eta hiru bertsolarik, bariku honetan, irailaren 22an, Algortako Andrés Isasi musika-eskolan. Ikuskitzuna 19:30ean izango da; sarrera, doan. Zientzialariek ipiniko diete gaia bertso-lariei; eta Kike Amonarrirek zuzenduko du saioa. Besteak beste, Jone Uria bertsolari algortarrak parte hartuko du. ◀



ERANDIO

Ultraviolet taldea, Altzagan; U2 taldeari gorazarre egin

Bariku honetan, irailaren 22an, Ultraviolet taldeak kontzertua emango du, Altzagako Irailaren 23a plazan. Emanaldia 21:00etan izango da; sarrera, doan. Miguel Pahino abeslariak sortu zuen banda 1998. urtearen inguruan, gustukoen daukan taldeari, Uzri, gorazarre egiteko. Talde horren abestiak joko dituzte, Altzagan. ◀

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Lorea Bilbao, Tasio Ardanaz, Usoa Fullaondo y Damaris Pan. © BIZKAIMEDIA

Erakusketak

Zornotza

Irailaren 7tik 30era arte, Zelaieta Aretoan.

Basauri

Urriaren 23tik azaroaren 12ra arte, Arizko Dorretxean.

Arrigorriaga

Urriaren 2tik 22ra arte, Euskaldun Berria erakusketa-aretoan.

Leioa

Azaroaren 13tik abenduaren 8ra arte, Kultur Leioan.

Getxo

Abenduaren 9tik 31ra arte, Torreñe aretoan.



Lumak astindu

KOLDO TELLITU MEJIA
Ikastolen elkarteko lehendakaria

Ametsa errealitate bihurtu

Gau honek erakusten du errealitatea ametsa baino ederragoa izan daitekeela». Dusko Ivanovicek esan zuen Baskoniak bere azken liga irabazi ostean. Esaldia grabatuta geratu zitzaidan. Azken egunotan berriz nola betetzen den ikusten ari naiz, Esloveniak Eurobasket irabazterakoan adibidez, ala betetzeko zorian nola dagoen, Catalunya-ko erreferendumarekin.

Hala ere errealitate bihurtu diren ametsen artean ederrena Etxepare Lizeoaren eraikin berria izan da, Ipar Euskal Herriko ikastolek, Seaskak izandako ametsik ederrenaren egikaritzea izan delako, Baskoniak bezala euskarazko hezkuntzaren liga irabazi dugu iparraldean berriro ere.

Batez ere eraikin berri horretan jarritako adreilu bakoitzak, hormigoi eta baldosa bakoitzak, ordenagailu bakoitzak Bidasoaz bi aldeetako erakundeen, elkarrean, eragileen eta norbanakoen izena daramalako. Eta Ikastolen Elkartearen elkartasun kutzarena ere bai. Eta egunero-egunero ametsa errealitate bihurtu arte lanean aritu diren guraso eta irakasleena... Herri-proiektua delako Etxepare Lizeoa.

Dena ez da eraikina, noski. Proiektu pedagogiko sendo batez jantzitako herri-proiektua, urterik urte eskola emaitzek frogatzen duten moduan: Ikastola ereduaren hezkuntza eraldatzaila. Seaskako ikasleak unibertsitate bidean jartzearekin batera, ikasturte honetan Lanbide Heziketaren bidea ere urratzen hasi da proiektu berri hau.

Urrats handi bat da Etxepare Lizeoak eman duena, erreferente bilakatzeko osagai guztiak dituen proiektua da eta jauzi handi bat ikastolen garapenean. Jada errealitate den proiektu bat, etorkizunari begira jarria dagoena. Amets gehiago eta handiagoak errealitate bihurtzeko bidean jartzen gaituena. ◀

Usoa Fullaondo, Bostekon

Leioa eta Getxo bisitatuko ditu erakusketa ibiltariak, datozen hilabeteotan. Fullaondorenakaz batera, Damaris Pan eta Tasio Ardanaz artisten lanak ikusi ahal izango dira.

Bosteko erakusketa ibiltariaren hogeigarren edizioak Leioa eta Getxo bisitatuko ditu, datozen hilabeteotan: Kultur Leioan egongo da azaroaren 13tik abenduaren 8ra bitartean; eta bere azkenengo geralekua Getxo izango da, Torreñe erakusketa-aretoa, abenduaren 9tik 31ra. Eskualdeko herri bi horiez gainera, Basaurin, Arrigorriagan

eta Zornotzan ere ikusi ahal izango da erakusketa. Usoa Fullaondo algortarra dago aurtengo edizioan hautatu dituzten artisten artean, Damaris Pan mallabitarra eta Tasio Ardanaz iruindarragaz batera.

Bosteko 2017 erakusketak *Trantsizio-guneak*, *pinturaren lurraldeak* du izenburu, eta askotariko diziplinen arte garaikideko obrak ikus daitezke

horretan: gai berberaren inguruan askotariko lanak egin dituzte artistek, eta hainbat teknika erabili dituzte horretarako. Erakusketa joan den irailaren 7an inauguratu zuten, Zornotzako Zelaieta Aretoan; ostean, Arrigorriagan, Basaurin, Leioan eta Getxon ikus-teko aukera egongo da, hurrenez hurren. Antolatzaileek adierazi dutenez, prestakuntza Bizkaian jaso duten artisten eta erakusketa hartuko duten «Bizkaiko Lurralde Historiko udalerrietan prestigio handia duten» artisten obra zabaldu eta ezagutarazteko plataforma interesgarria da Bosteko. ◀

Hitza emanda



Hasiera

Inork ez du igarri aurtien sindromea, irailak hartu baitu bertso kolorea. Bertsolariari so, gertu da zalea... Erakutsiko ahal du bakoitzak berea!



JOSU ARROYO IZKOA
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Euskal komikiaren historian murgiltzeko

Euskal komikigintza izango da nagusi egunotan Bizkaiko Foru Liburutegian. Izan ere, urriaren 28ra bitartean, *Euskal komikia, 1975-2017* erakusketa bisitatu ahal izango da aipatutako eraikineko Areto Nagusian (Diputazio kalea, 7, 2. solairua, Bilbo). Horretan, komikigintzak azken 42 urteetan izan duen bilakera ezagutzera emango da. Erakusketa-aren komisarioak Kike Infame eta Mikel Begoña sopoloztarra dira. Erakusketa zabalik egongo da astelehenetik barikura, 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era; ostera, zapatuetan, 10:30etik 13:00etara. Erakusketaz gainera, gaiari dagozkion askotariko jarduerak antolatuko dituzte egunotan. Irailaren 26an, martitzenean, mahai-inguru bat egingo dute, komikiaren egungo egoeraren inguruan, gaztelaniaz; Fernando Tarancónnek eta Dani Fanok berba egingo dute, Koldo Azpiarte moderatzailea den bitartean. Hurrengo egune-

tan ere beste hainbat berbaldi egongo dira aukeran: urriaren 3an, martitzenean, euskarazko komikiaren gaia aztertuko du Mikel Begoña, euskaraz; urriaren 17an, martitzenean, euskal komikian emakumeek izan dute garrantziaren gaineko hitzaldia eman-go du Josune Muñozek, euskaraz; eta urriaren 25ean, eguaztenean, komikiaren eta beste ilustrazio batzuen inguruan hausnartzeko aukera egongo da, Amaia Ballesterosegaz, euskaraz.

Paparrean IV. Komiki Lehiaketa

Bilboko Udalak Parrapean IV. Komiki Lehiaketaren deialdia zabaldu du, 14 eta 17 urte arteko gazteei begirakoa da eta euskarazko komikiak bultzatu gura ditu. Parte hartu gura dutenek lanak urriaren 6ra arte aurkez ditzakete, Begoñako Liburutegian; posta ziurtatuz ere aurkeztu ahal izango dira. Sariak urriaren 21ean banatuko dituzte, goizean, Bilboko Karmelo plazan. ◀

argi
hizki
ak²⁰¹⁷

「a」

AZEBARRIN*, irailaren 28an, eguena, 19:30ean

INAUGURAZIOA^{eta} SARI-BANAKETA



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN ERAKUSKETA

Algorta, irailak 28-urriak 1

AZEBARRI KULTUR ELKARTEA

* Euskal Herria kalea, 14-16, Algorta


☑ Barikuan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00
Zapato eta domekan, 12:00-14:00

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.argihizkiak.eus



Albuma





Zure botoak erabakiko du...

U ribe Kostako Uda III. argazki-lehiaketara uribekostarrek bidalitako irudietatik guztietatik 15 onenak aukeratu ditugu, daborduko; orriotan dituzuen honexek, hain zuzen ere. Herri-bozketaz hautatuko dira 3 onenak, iragarritako sari bana jasoko dutenak. Orain, zure txanda da: urriaren 1era arte botoa eman ahal izango duzu; horretarako, www.hiruka.eus webgunera sartu. Parte hartu eta saritzeko modukoak aukeratu!





laz 373 txirrindularik hartu zuten parte proban. © MENDIBIKE

Irailaren 24an, domekan, Gorlizko Mendibike Martxa antolatuko du Mendibike Elkarteak, 26. aldiz. Daborduko, proban Internet bidezko inskripzioa itxita dago.

Gorlizko Mendibike Martxaren helduen atalean ezin daiteke izena eman daborduko, sarearen bidez. Gehien gehienez 500 txirrindulari onartuko dituzte; hala, kopuru hori beteko ez balitz, probaren egunean egin ahal izango litzateke inskripzioa, 23 euro ordainduta. Gazteek eta umeek zuzenean kiroldegian bete beharko dute inskripzioa, martxaren egunean, 09:00etatik 10:00eta-

ra; edo bezperan, 10:30etik 13:30era. Umeek eta gazteek zazpi euro ordaindu beharko dituzte, federatuta badaude; hiru euro gehiago, ez badaude.

Gorlizko MTB Mendibike Martxa goizeko 09:00etan hasiko da, nagusien martxagaz. Irteera, ohiko legez, Gorlizko kirol-instalazioetan egongo da. Probak ibilbide bi izango ditu: laburrenean, txirrindulariek 28 kilometro bete beharko dituzte, desnibela

1.100 metrokoa izango da, zailtasun fisikoa eta teknikoa ertaina izango da, eta anoagune bi izango dira: likidoak eta solidoak, biak. Ostera, ibilbide luzean, distantzia 45 kilometrokoa izango da; desnibela, 1.500 metrokoa; eta zailtasuna, ertain-altua. Martxa nagusiagaz batera, Mendibike elkarteak beste proba bi antolatu ditu, gazteenzat eta txikientzat. 4 eta 11 urte bitarteko neska-mutil txikiek kiroldegira jo beharko dute, bertan bost bat kilometroko ibilbidea egiteko, goizeko 10:30etik aurrera. Gurasoek lagundu ahal izango dituzte, oinez edo bizikletaz. Ibilbidea amaituta, ginkana izan-

go dute atletismo-pistan, zenbait oztopogaz. Euren aldetik, 11 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak lehenago hasiko dira, 10:00etan. Horiek 15 kilometroko ibilbidea egingo dute Gorliz inguruan, elkarteko jagoleek lagunduta; 500 metroko desnibela izango du bideak. Horien kasuan ere, gurasoek lagundu ahal izango dituzte, bizikletaz. Parte-hartzaileek gutxienean eskarmentua izan beharko dute mendiko bizikletan, tarte batzuek zailtasun apur bat izango baitute. Antolatzailerik hainbat opari egingo diete umei eta gazteei. ◀

info+: Mendibike.net

Betiko Neskak, Futbola Oinarritik Euskarazen

Aurten, hirugarren urtea da euskarak, futbolarak eta Erandiok denboraldi berriari eskua elkarri emanda ekin diotena, Futbola Oinarritik Euskaraz proiektuaren bidez. Helburu horregaz, talde berean jokatu dute Erandio Kirol Elkarteak, Astrabuduako futbol-taldeak, Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak eta Eusport enpresak. Gainera, hasierako planari jarraituz, hasi berri den denboraldirako fitxaketa berria egin dute: Erandioko Betiko Neskak kluba. 2017an hamarkada bete duen taldea momentu berezian heldu da Futbola Oinarritik Euskaraz proiektura, futbol-zelaiari

erronka berria ipini baitute: Baietz 15 Entrenamendu Euskaraz egitasmoa.

Egokiñe Angulo Erandioko Udaleko Euskara zinegotziak akordura ekarri duenez, orain arte 250 umeagaz jardun dute beharrean, eta jaso dituzten emaitzak «nahiko positiboak» izan dira. Hala, «berdintasun-irizpide batetik, Euskara Zerbitzuan pentsatu genuen ona izango litzatekeela Erandion nesken futbol-talde bat izanda, proiektuan ere sartzea. Irizpide hori kontuan izanda, Erandioko Betiko Neskak taldeari ere deitu genion eta gonbidatu genituen proiektuan parte hartzera», azaldu du Angulok. ◀

Getxok eta Uribealdeak denboraldia hasi dute

Pasa den aste-akabuan hasi ziren lehiatzen eskualdeko gizonen errugbi-taldeak, senior-mailakoak. Zorritzarez, biek galdu zituzten partidak. Getxo Rugby Taldearen kasuan, etxean lehiatu zen, Gernikaren aurka, derbi bizkaitarra, beraz; baina, ez zuen abantaila hori baliatu. Hala, 12-26 nagusitu ziren Busturialdeko basurdeak, Ohorezko Mailako lehenengo jardunaldian. Okerragoa jasan zuen Uribealdeak Ohorezko B Mailan: Bera Bera taldeari bisita egin zion Anoetan, eta 61-18 emaitzagaz bueltatu zen etxera. Dena den, denboraldia luzea da eta udaberrira arte emaitzak

hobetzeko aukera izango dute Uribe Kostako talde horiek. Lantaldea indartzeko, Getxo Rugby Taldeak fitxaketa bi egin ditu asteotan: Argentinako Gonzalo Quintana uztartze erdia eta Julio Speziali eskumako harroina.

Bestalde, urriaren 8rako prestatzen dabil Getxo Rugby Taldea, orduan hasiko baita lehia emakumezkoen Errugbi Liga Ohorezko Mailan. Klubak emakumeak taldera erakartzeko kanpaina bat abiatu du, errugbia probatu eta gustukoa izanez gero, jokatzeko gozatzeko aukera emateko. Lantaldea indartu gura dute horrela. ◀

info+: idezkaritza@getxorugby.eus

Berangoko Milian, izen-ematea



Ehunka atleta lehiatuko dira Gobelaldeko zirkuituan. © FONEXION

Berangoko Nazioarteko Miliarren 30. edizioa jokatu da datorren irailaren 30ean, zapatuan, Gobelaldeko zirkuituan. 16:20tik aurrera korrika egingo dute ehunka atletek, nazioarteko izarraz batera. Daborduko, probarako izen-ematea zabaldu du Berango Atletismo Taldeak bere webgunean.

Datorren irailaren 28ra arte egin ahal izango da inskripzioa, doan, hamazazpi kategoriaren arteko hamahirutan; beste lauak gonbidapenen bidez beteko dira. Kategoria bakoitzean gutxienez hiru atleta eta gehienez berrogei izango dira, zirkuituko 1.609,344 metroak betetzeko, nork bere kategorian. Dortsalak jaso beharko dituzte

parte-hartzaileek honako hitzorduren batean: irailaren 29an, Berango Antzokian, 18:00ak eta 20:00ak bitartean; edo probaren egunean, 15:15etik aurrera. Pasa den urtarrilean, Berangoko nazioarteko Miliak jaso zuen Estatu espainoleko milia onenaren saria, bigarren urtez segidan. Izendapena Anabel Landa Gaubeka Berangoko alkateak hartu zuen. Josu Hernández Berangoko Atletismo Taldeko presidente eta antolakuntzako arduradunak aitortu zuenez, «antolatzailentzat berebiziko motibazioa da bigarren urtez jarraian gure lehiaketaren maila eta antolakuntza saritzea, 6.800 biztanleko herri batean izanda». ◀

info+: Berangoatletismo.com

Getxoko Milia egingo dute aste-akabuan

Irailaren 23an, zapatuan, jokatu da Getxoko Miliarren XI. edizioa. Algortako Telletxe plazak eta kaleak osatuko dute pista. Proba Itxartu Taldea kultura eta kirol-elkarteak eta Getxoko Atletismo Taldeak antolatuko dute, ohi legez. Getxoko Milia gizez-


ko zein emakumezkoen maila denetan korritzen den iraupen-erdiko herri-lasterketa da, txiki eta umeen mailetatik seniorretara, federatuak zein ez federatuak barne. Lasterketa goizeko 11:40tik aurrera egingo da; kategoria desberdinak tarteka aterako dira. ◀

Erandioko Atletismo Eskola martxan ipini da

Eguenean, irailaren 21ean, hasiera emango diote Erandioko Atletismo Eskolaren 2017/18 denboraldiari. Batzar informatibo bana egingo dute eskolako kide berrientzat eta ohiko ikasleentzat, biak Altzagako kiroldegian. Lehenengo bilera 18:30ean

izango da, eta iazko kideena, ordu bat beranduago. Bitartean, izen-emateak zabalik segitzen du. Kirolari berriek eskolaren webgunean bete dezakete inskripzio-orria. Aurten, Erandioko Atletismo Eskolak 35 urte bete ditu. ◀

izen-ematea: Atletaerandio.com



JAKINDURIEK MUNDUE ERREKO DAU

3 BERTSOLARI ETA 3 ZIENTZIALARI AURREZ AURRE

IRAILAREN 22AN, OSTIRALA, ARRATSALDEKO 19:30ETAN
ALGORTAKO MUSIKA ESKOLAKO KRISTALEZKO KIOSKOAN

ZIENTZIALARIAK
OSKAR GONZALEZ
AINARA SANGRONIZ
JOSU LOPEZ-GAZPIO

BERTSOLARIAK
MAIALEN LUJANBIO
JONE URIA
AMETS ARZALLUS

AURKEZLEA KIKE AMONARRIZ

BIZKAIA ZIENTZIA PLAZAREN EKIMENA **BZP.EUS**



Kultura Zientziako Katedra
Cátedra Cultural Científica





Urdaibaik seigarrenez irabazi du Kantauri Arraun Elkarteko liga. © EUSKO LABEL LIGA

Arraunak eman duena

Denboraldia amaitu berri da, Ibaizabalen jokatu zen El Corte Inglésen banderagaz batera. San Juan, Urdaibai, Donostiarra, Lapurdi eta Getxo nagusitu dira.

Joan den domekan, akabura heldu zen Eusko Label Liga, Areeta eta Portugalete artean jokaturako estropadakaz. Urdaibai nagusitu zen, arraun-denboraldiaren azkenengo bandera horretan. Horregaz batera, bermeotarrek euren seigarren liga lortu zuten, bigarrena jarraian. Hala, *Bou Bizkaiako* Ligako koroa altxatu

zuten beste behin ere, tartean Eneko Van Horenbeke Bilbao getxoztarrak. Gainera, Arkoteko arraunlari ohiak bigarren postua lortu zuen Kontxako banderan, denboraldiko hitzordurik garrantzitsuenean. Getxoztarrak azaldu duenez, taldekideei iragarri zien lehiatzeari utziko ziola denboraldia hasi aurretik, baina bertoko arraunla-

ri askok kluba utzi zuten, azkenean geratu egin zen. Olatz Ortega getxoztarrak eta Jone Oliban lemoiztarrak Van Horenbekek egindako balentria bera lortu zuten Donostiako hondartzan, Errenteriako Hibaika klubagaz. Baita ur horietan ere, Paul Gáldiz getxoztarrak koska bat igo eta astindu zuen Donostiako bandera, Orioko eskifaigaz irabazi ostean.

Euskotren Ligari dagokionez, Ortegak eta Olibanek bigarren postua erdietsi zuten, sailkapen nagusia San Juanek irabazita. Pasai Donibane-

ko San Juan traineruak irabazi egin zuen ere eskualdean Euskotren Ligakoek jokatu zuten bandera bakarra: Getxokoa. Eusko Label Ligan, ostera, Hondarribiak jaso zuen bandera hori, Oriori ateratako hiru ehunei esker.

KAE ligei dagokionez, 1. Mailan Donostiarra izan zen buru eztabaidaezina, eta Eusko Label Ligara igotzea lortu zuen, Plentziako bandera irabazteaz gainera. Ostera, Arkote 9. postuan geratu zen, eta maila gorde zuen horrela. Postu berean sailkatu zen Getxo, KAE2 Ligan. Sailkapen horretan, Lutxana 11. lotu zen. Erandioko bandera San Juanek bereganatu zuen; ostera, Algortako Portu Zaharreko bandera eta liga bera Lapurdik mendean hartu zituen. Hala, datorren denboraldian KAE1 Ligan egingo dute arraun Angelu eta Donibane Lohitzunekoek.

Bestalde, datorren urteari begira, Areetako Raspas arraun-elkarteak iragarri du trainerua ateratzen ahaleginduko dela. Ikusteko dago KAE2 Ligan hasiko litzatekeen ala datorren urtean maila hori bitan zatituko duten antolatzaileek, aurtan aipatu zen legez.

Azkenik, Getxo Arraunek irabazi zuen Arraunlari Beteranoen ABE Liga. Getxoztarrek eskuratu zituzten jokaturako hamar banderetako zazpi (Angelu, Donostia, Orio, Armintza, Zumaiako Plentzia eta Getxo). Bigarren sailkatua Zumaiako trainerua izan zen, bandera bakarragaz, eta hirugarren izan zen Arkote. Plentziakoek bandera bi irabazi zituzten: Ponteijos eta San Vicente. ◀

Moralesek zazpi domina lortu ditu, Mundukoan

Marcos César Morales Raspas arraun-elkarteko arraunlariak eta entrenatzaileak zazpi urrezko domina lortu zituen Aulki Mugikorrek Beteranoen Munduko Txapelketan, joan den astean, Esloveniako Bled herrian. Moralesek Argentinako Regatas de Rosario taldeagaz

jardun zuen eta urrezko bina domina lortu zituen 8+, 4- eta 4x modalitateetan. Modu berean, beste domina bat jantzi zuen Skull Bikoitzeko proban. Azkenik, bigarren postu bi ere lortu zituen. Javi Sánchez Getxo Arrauneko kidea bigarren geratu zen Skiff modalitateko proba bitan. ◀

Aste-akabuan, José Luis Ugarte omenduko dute

Hilaren 23an eta 24an, Abrako urak belaontziz beteko dira, José Luis Ugarte 27. Lehiaketan parte hartzeko. 200 bat nabigatzaile gazteek parte hartuko dute Optimist, Laser, Laser Radial, 420, Snipe eta L'Equipe modalitateetan, nor bere trebetasunak eta zaletasunak erakusteko eta nabi-

gatzaile historikoari gorazarre egiteko. José Luis Ugarte marinel ospetsu getxoztarra orain dela bederatzi urte zendu zen; Abrako Itsas Errege Klubaren bela-eskolak bere izena daroa. Klub horrek antolatzen du lehiaketa; zapatuan eta domekan horretara batuko dira etorkizun oparoko belazaleak. ◀



Kirolaz beste

IÑAKI ETXEGIA MARDARAS
Kirolaria

Bizitza eredu faltsuak

Azken bolada honetan gero eta anitzagoak dira sare sozialetan aurki ditzakegun gai eta pertsonaiak. Kirolen inguruan dagoen interesak sarritan horren inguruko pertsona eredu faltsuak agertzea dakar. Beraz, errealitatetik urruntzen diren bizitza estilo eta lorpen pertsonalak saltzen hasi diren sasikirolarien presentziak gorakada itzela izan du, baina okerrean, horien jarraitzaileak nerabezaroan dauden gazteak izaten direla da. Horrek guztiak gazteon osasuna, estereotipo zehatz eta irreal batean oinarritzea ekartzen duen heinean, horri buruzko hausnarketa bat egitera bultzatzen zaituztet, osasuna ezin baita itxurarekin alderatu. ◀

Gabon Kopa egingo du Askartza Waterpolok

Aste-akabuan hasiko da aurtengo waterpolo-denboraldia, Askartzako igerilekuan. Hitzordua ez da ofiziala, baina klubak antolatutako ohiko Gabon Kopak bere lekua egin du, mende laurdena gaindituta. Izan ere, gizezkoen probaren 28. edizioa izango da eta emakumezkoen probaren 27. ekitaldia. Hala, zapatuan eta domekan

partida ikusgarriez gozatzeko aukera izango da, irailaren 23an eta 24an. Emakumezkoen lehiari, bertoko Askartza eta Leioa izango dira, Madrilgo Moscardo taldeagaz batera. Gizezkoen aldean, dematan jardungo dute Bordeleko Saint-Brunok, Bartzelonako Rubik, Madrilgo La Latinak eta etxeko taldeak. Deigarriena derbia izan daiteke. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

**Getxoko kultur etxeari esker,
Antzerki Jardunaldietarako sarrerak
zozkatuko ditugu**

Getxoko Antzerki Jardunaldietako ikuskizunetarako sarrera bikoitza lortu gura baduzu, irailaren 29a (barikua) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Iraileko saria
GetxoGasori esker, 3 auto-garbiketa programa



3 auto-garbiketa programa zozkatuko ditugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Zozketan parte hartzeko, bidali irailaren 30a (zapatua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

						8	
		6	4	8			
4				7		2	5
		9	3				
	1					3	8
2			1	7			
			8				
7	2						1
9		5		1			3

Soluzioa

3	9	2	4	1	7	5	8	6	
1	6	8	3	9	5	2	7	4	
4	5	7	6	2	8	1	3	9	
6	5	9	8	7	1	3	4	2	
8	4	3	9	6	2	7	5	1	
1	2	7	1	2	4	5	3	6	8
5	2	1	7	3	9	8	6	4	
7	3	6	2	8	4	9	5	1	
9	8	7	1	5	6	2	3	4	

+ Guardiako farmaziak, hilaren 21etik 27ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Astelehenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik martitzeneko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MARTÍNEZ. Basagoiti, 45. ALGORTA. 944 914 632. Domekan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Domekan eta eguaztenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Barikuan, zapatuan eta martitzenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.



Getxo, ostera ere, «euskarri» izateko bidean

IÑAKI FRIERA

Datorren azaroaren 5ean Gure Esku Dagok herri-galdeketa egingo du Getxon; baita Berangon, Erandion eta Leioan ere. Getxoko taldea atzera begira ipini da, aurrekariak aztertuz gogoeta egiteko, gaur egungo egoera azaltzeko, eta azaroko egitekoak prestatzeko asmoz.

Espainiako Estatuko udal hauteskundeak, 1931ko apirilak 12; errepublikaren aldekoak nagusitu dira hiriburu gehienetan. Jose Antonio Agirrek irabazi ditu Getxon: 21 zinegotzietatik 16 lortu ditu Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Apirilak 14, Errepublika aldarrikatu da, Agirre Euzkadi egunkariaren egoitzan dago Leizaola, Azkue eta Kareaga jeltzaleekin. Giro nahasia da kalean; herritarren mobilizazioa nabarmena da. Egoera ikusita, Leizaola, Azkue eta Kareagak Getxora joateko eskatu diote Agirreri, udala biltzeko, «Getxok udal mugimendu handi baten euskarria izan behar du eta».

Egun hartan aldarrikatu zen euskal errepublika Getxon, «Espainiako Errepublikarekin federatua», eta euskal udalei eskatu zien aldarrikapen bera egiteko eta galdegiteko foruak baliogabetu zituen 1839ko legea indargabetzea eta erakunde burujabeak lehenatzea. Hartara, udal batzuek Bizkaiko Batzar Nagusiak deitu zituzten Gernikara, apirilaren 17rako. Ezinezkoa izan zen: Gasteiz eta Bilbotik bidalitako soldaduek hiribildua hartu zuten eta Guardia Zibila errepedeak itxi zituen. Hala ere, Gernikatik hur, ehunka udal ordezkariak sinatu zuten Batzar Nagusiak onetsi behar zuten agiria, non autodeterminazio eskubidea errespetatzea galdegin zen «herriek beren burua determinazio librean gobernatzeko duten es-

kubide natural eta ezin kenduzkoaren arabera».

«Getxo izan zen mugimendu haren euskarrieta-ko bat –azpimarratu du Gure Esku Dago-k (GEDek)–, eta euskarri izan behar du erabakitzeko eskubidearen alde egun indartzen ari den dinamikan ere». Balio hori eman dio Euskal Herriaren estatus politikoaz antolatu duen kontsultari: «Azaroaren 5ean, Getxo

Lege hutsaren muga defendatzen dutenen aurrean herritarren borondatean oinarrituriko demokrazia nabarmendu behar da

izango da kontsulta antolatu duen Euskal Herriko udalerririk handiena eta horrek berebiziko garrantzia ematen dio, geroago etor daitezkeen bestelako mugimenduen euskarri bihur daitekeelako Getxoko emaitza».

«Demokrazian sakontzea bilatzen duen parte hartzeko prozesu» gisa aurkeztu du GEDek kontsulta, eta ideia horren bueltan antolatu nahi du parte-hartzea sustatzeko kanpaina, beste bi oinarriekin batera: «Getxozarren garaia da» eta «Erabakitzeko eskubidea dugu».



Jose Antonio Agirreren agindupean, 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu zuten euskal errepublika Getxon; ostean, Getxoren bide beretik, beste hainbat udalek ere aldarrikapen bera egin zuten.

Oinarriok bat datoz GEDek emaniko mezuarekin apirilean, kontsultaren Batzorde Sustatzailea eta sinaduren bilteta aurkezteko ekitaldian (galdeketa-aren aldeko 7.448 getxozarren sinadurak bildu dira). Herritarren protagonismoa aldarrikatu zuen, lege hutsaren muga defendatzen dutenen aurrean herritarren borondatean oinarrituriko demokrazia nabarmenduz: «Herritarrak eskubide sozial eta politikoen jabe gara eta gure borondate demokratikoari erantzun behar dio legeak».

«Legea da muga» diote kontsultaren kontrakoek. Hori da, barbarako Katalunian urriaren 1ean egingo den erreferendumaren aurkakoek erabiltzen duten argumentu nagusia, eta hori da Euskal Herrian ere erabakitzeko eskubidea ukatzeko baliatzen duten diskurtsoaren oinarri ia bakarra. Legearen printzipioa da: legeak ezartzen ditu joko arauak eta hura bete ezean ez dago jokorik. GEDen iritziz, aldiz, «demokraziaren printzipioa nagusitu behar da legeak eta gizarte antolatu batek aldarrikatzen duen eskubideak talka egiten dutenean».

Atzera begira, zenbait adibide

Bi printzipio horien arteko talkaren adibide gisa, Rosa Parks eta Kathrine Switzer aipatu zituen Andres Isasin GEDek: «Legeak-edo ukaturiko eskubidearen defentsan ibilitako bi emakume, bi herritar».

Montgomeryko legearen arabera, garraio publikoek marra bat zuten beltzak eta zuriak banatzeko. Beltzak autobusean sartu, ordaindu, jaitsi eta berriz igotzen ziren atzeko atetik. Parks erdiko jarlekuetan jesarri zen 1955eko abenduaren 1ean (beltzek erabil zitzaizketen, zuriek jarlekua eskatzen ez bazuten).



1931n Euskal Herrian emakumeak hautagai izan zitezkeen, baina ez hautesle. 1933ko azaroaren 5ean, emakumeek botoa emateko eskubidea izan zuten lehenengo aldiz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, estatutua bozkatzeko erreferendumean, hain zuzen ere.



Rosa Parks garraio publikoan zuriei gordetako jarleku batean eseri zen, eta ez zion gazte zuri bati utzi, legearen kontra eginez. Eskubide zibilen aldeko Amerikako Estatu Batuetako mugimenduaren eragiletzat jo izan da jazoera hori.



Katherine Switzer Bostongo maratonia dortsalez egin zuen lehenengo emakumea izan zen, 1967an. Probaren arauetako batek galarazten zion parte hartzea, gizonentzat bakarrik zelako; epaileek eta hura kanporatu gura izan zuten.

Alde hura bete zenean, gidariak altxatzeko eskatu zion, gazte zuri igo berri bati laga behar ziolako, legeak hala agintzen zuen eta. Parks ez zen altxatu. Eskubide zibilen aldeko Estatu Batuetako mugimenduaren eragiletzat jo izan da gertaera, nahiz eta lehenago beste emakume batzuek ere berdin jokatu zuten: C. Colvinek urte bereko martxoaren 2an; I. Morganek, 10 urte lehenago, eta I. Wells-Barnettek, 71 urte lehenago.

Ez zen legea izan Kathrine Switzerri Bostongo maratonia korritzea galarazi nahi izan ziona 1967an, probaren arau bat baizik: gizonentzako proba zen. Switzerrek «KV Switzer» izena eman zuen eta 261 dortsalarekin abiatu zen. Ibilbidean, epaile batek ikusi eta kanporatu nahi izan zuen: «Zoaz nire lasterketatik eta itzuli dortsal hori!», egin zion oihu. Switzerrek, haren mutil lagunak eta beste korrikalari batzuek aurre egin zioten epaileari eta Bostongo maratonia dortsalez egin zuen lehen emakumea izan zen (arinago iritsi zen Bobbi Gibb –aurreko urtean ere parte hartu zuen–, baina dortsalik gabe).

«Erabakitze eskubideaz ari garela –galdetzen du Getxoko GEDek–, Alabamako gidariak eta Bostongo epaileak bezala jokatu nahi ote dute egun ere legearen printzipio hutsari heltzen diotenek?».

Zer dela eta azaroaren 5ean?

Herritarren ekimenak Parks eta Switzer bezalako emakume eta herritarrak izan ditu gogoan kontsultaren data proposatzerakoan: «1931n Euskal Herrian emakumeak hautagai izan zitezkeen, baina ez hautesle. 1933ko azaroaren 5ean, emakumeek boto eskubidea izan zuten lehen aldiz Araban, Bizkaian eta

Gipuzkoan, estatutua bozkatzeko erreferendumean. Horregatik proposatu genuen azaroaren 5a kontsulta egiteko, eskubide zibil eta politikoen defentsa egin duten emakumeak ere gogoan».

Baina esan bezala, Euskal Herrian ere hainbat gertaera izan dira historia hurbilean, non legeak muga ezarri nahi izaten zion herritarren borondateari: euskarazko irakaskuntza, ikurrinaren erabilera, nahitaezko soldadutza..., edo, berriki, errefuxiatuen etorrera. Haren harira, Patxo Pomposo eta Gotzon Garamendi getxoztarrak aipatu zituen GEDek Areetan.

Pomposo udal langilea zen eta udaletxean zegoen armada frankista Algortan sartzean. Alkatearen bulegora joan, ikurrina eta Agirre lehendaka-

GED: «Demokraziaren printzipioa nagusitu behar da legeak eta gizarte batek aldarrikatzen duen eskubideak talka egiten duenean»

riaren erretratua hartu, gerriaren bueltan bildu, alkandoraren azpian gorde eta Goñibarri baserrira eroan zituen. Han izan ziren frankismoak iraun bitartean, harik eta 1980an Pomposoren bilobak ikurrina Andra Mariko batzokian jaso zuen arte.

Bilbon, 1963ko arratsalde batean, haur bat euskaraz entzun zuen Garamendik. Haren hizkuntza mailak harrিতuta, ea non ikasi zuen galdetu zuen. Azaldu zioten bazirela hainbat etxetan euskaraz ikasten zuten haur taldeak, eta agindu zioten andereño bat bidaliko zutela zortzi ume biltzen bazituen. Begoña

Abaitua izan zen lehen andereñoa. «Algortako geltokian biltzen zituen umeak aste bakoitzean zegokion etxera joateko. Lurrean jesarrita, horman oinarrituta, ahal zuten moduan hartzen ei zituzten euskarazko eskolak –gogorarazi zuen GEDek–. Getxoko familiak ziren: Azkargorta, Lores, Urretxua, Basterra, Garteiz, Camiña, Basañez, Galdeano, Agirre, Zarate, Aretxabala, Garamendi, Garate, Uribe, Iturriaga, Zabala, Ceberio, Uriarte, Rekalde...»

Herritarren ahalduntzearen adibide gisa jarri zituen: «Banaka edo taldeka haien eskubide eta askatasunen alde ekin zuten, ahaldunduta, haien historiaren protagonista eta subjektu bihurtuta. Orain be getxoztarron garaia da. Historiako beste une batzuetan legez orain be erakutsi nahi dugu gure eskubidearen alde egiteko prest gaudela, konplizitateak lantzeko eta eskua elkarri emanda ibiltzeko prest gaudela».

Getxo udal mugimenduaren euskarri izan zen 1931n, Bermeo, Elorrio eta Mundakarekin batera. 86 urte geroago, berebiziko garrantzia ematen dio kontsultari Gure Esku Dagok: «Bermeen 2017ko apirilaren 2an egin zen kontsulta; Elorrioren, maiatzaren 7an. Getxon (eta Mundakan, ziur asko) azaroaren 5ean egingo dugu. Aukera polita da autodeterminazio eskubidearen aldeko mugimendu haren euskarri izan ziren udalak erabakitze eskubidearen defentsan berriz elkartzeko. Asko dugu jokoan eta haren garrantziaz jabetu behar dugu guztiok. Ederra egin dezakegu, Getxoko parte-hartzea geroago etorriko diren pausoen euskarri izan daiteke.» Hori da GEDek ezarri duen helburua: Getxo, ostera ere, «euskarri» izatea.



Mundukatuak

Iker Garagarza Berger algortarra

«Munich hiri bikaina da, bizi-kalitate handia dago»

Iker Garagarza Berger algortarrak orain dela hiru hilabete prestatu zituen mailetak Alemaniako Bavaria landerreko hiriburura joateko. «Nire neska-lagunari lan-eskaintza on bat egin zion hemengo enpresa batek. Ni itzultzaile autonomoa naiz, eta edozein lekutik lan egin dezaket. Beraz, Algortan elkarregaz bizi ostean, Munichera etortzea erabaki genuen», azaldu du Garagarzak. Bere ustean, Munich «hiri bikaina da, bizi-kalitate handia dago».

Egunotan, Oktoberfesta famatua ospatzen dabilta, «eta hirian giro bikaina dago». Ostera, hango gaueko giroa Euskal Herrikoagaz alderatuta «nahiko ezberdina da; taberna gutxi dago. Hemengoek festa ugari egiten dituzte etxeetan». Halere, dena ez da festa. Kirola ere egiteko aukera bada. Munichetik hur, «Alpetan, eskiatzeko aukera dago, azken asteotan elu-

rra bota baitu. Gainera, zenbait glaziar daude. Daborduko, eskiak prest ditugu, eta urrian denboraldiari hasiera ematea espero dugu», aurreratu du Garagarzak. Aurretik, Munich eta inguruak bisitatu zituen, bizikletaz:

“ Bigarren Mundu Gerran gertatutakoa azaltzen dute, ezer ezkutatu barik ”

«hemen jende asko mugitzen da bizikletaz. Hiria ondo prestatuta dago horretarako, eta txirringularen eta autogidarien artean errespetua nagusi da».

Ezagutzekoak

Itzultzaileak azpimarratu duenez, Munich «historia handiko hiria da. Besteak beste, Bigarren Mundu Gerraz

lotutako hainbat eraikin eta leku daude», tartean Dachau kontzentrazio-esparrua hurbil dago; bertan, 41.500 pertsona hil zituzten.

Garagarzak gomendatu du erdigunea den Marienplatz-etik ateratzea, Viktualienmarkt merkatua bisitatzeko, Englischer Garten parkeak bueltatzeko bat ematea, Isar ibaiaren ertzetik ibiltzea eta udan bainu bat hartzea, Biergarten edo jatetxe tipiko batean bazkaltzea eta garagardoren bat edatea, Nymphenburg jauregiko lorategietatik galtzea, parke olinpikoan Estadio Olinpikoa bisitatzeko...

Horrez gainera, museo ugari daude. Berari «oso interesgarria» iruditu zitzaion NS-Dokumentationszentrum museoa. Bertan, nazionalsozialismoaren historia kontatzen dute; «Bigarren Mundu Gerran gertatutakoa azaltzen dute, ezer ezkutatu barik». Autoen zaleek BMWren museoak daukate. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortakoa.

Adina

33 urte.

Zertan dabil

Beharrez, itzultzaile; eta alemana hobetzen.

Ikasketak

Kazetaritza lizentziatua; Itzulpengintza eta Teknologia graduondokoa ere ikasi du.

Noiz arte Munichen?

Printzipioz, urtea bukatu arte egongo da Alemanian, baina baliteke egonaldia luzatzea.

NON DAGO



Lurraldea

Bavariako Estatu Librea (Alemaniako Errepublikaren Federala).

Azalera

70.550 km².

Hiria

Munich.

Biztanleria

1.450.381 pertsona.

Hizkuntzak

Alemana da bertako hizkuntza ofiziala. Bavariariek ez du inolako estatus juridikorik, ezta idaztarau estandarrik ere. Eztabaida dago ea bavariar hizkuntza beregaina edo alemanaren dialektoa den; halere, aleman estandarren hiztunentzat bavariar ulertzea zaila izan daiteke. 2005ean, sei milioi hiztun zituen Bavarian eta beste zortzi Austrian, Italian eta Txekian.

Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua